

## .1ZERU-LURREN IKUSPEGIAK AIRETIK

Kanpoaldea, egun argiz.

Hodeiek osatutako itsasoa hegazkin batetik ikusia. Motorren zarata entzuten da.

Pixkana-pixkanaka irudia objetibatu egiten da eta he-

gazkinaren metalezko dirdirak ikusten dira, laino arte- tik agertzen eta laino artean galtzen.

Hegazkina jaisten ari da eta irudia argitu egiten da, ha- rik eta oraindik ere urrun ageri diren lur zati batzu agertu diren arte, gero eta gertuago, hodeien mugimenduen erritmoan.

Hodeiek, irrist eginez mugitzerakoan, kateamendu arra- roak irudikatzen dituzte.

Azafataren ahotsa entzuten hasten da.

**AZAFATA (OFF)** -*(Laster batean hartuko dugu lu- rra Euskal Lurralde Autonomoan... Ko- mandanteak eta tripulazio osoak ongi eto- rria opa dizuete, batez ere Herrimin Maitea antolamenduko partehartzaileei...*

Irudi guzti hauen gainean, KREDITU TITULUAK, ho- rien artean pelikularena:

### KE ARTEKO EGUNAK

#### 2TREN GELTOKIA. 1945

Kanpoaldea, gauez

**OFF)** -*AZAFATAren ahotsa entzuten da oraindik ere, hegazkinaren motorrak, hegalen zarata frenatzerakoan(.*

Tren bat sartzen da Geltokian, 40ko hamarkadako giro ilunean. JENDE taldeak daude zain.

Hauetako talde bat PEDRITOK (8 urte), bere AMAK eta beste BIKOTE BATEk osatzen dute.

**OFF)** -*Hegazkinaren gurpilen kolpea lurreratzerakoan, hegazkinaren ibilera pistan zehar(.*

Guztiek trenetik jaisten ari diren GIZON BATZUEi begiratzen diete.

Zurbil, ihar, zarpail, kazkamotz. Egurrezko maletak dituzte aldean.

PEDRITOrri zirrargarriak zaizkio aurpegi hautziak, derrotatuak, begirada galduak.

Bere AMAri eskutik tira egiten dio zerbait galdetu nahian baina AMAk ez dio kasurik egiten.

**OFF)** -*Eskailera ezarri dute hegazkinaren ondoa eta bidaiariak jaisten hasten dira(.*

PEDRITOK AMAREN arreta bereganatu nahian segitzen du. Bere aurpegi muxinduaren gainean, Aireportuko soinuekin batera, nagusi baten ahotsa entzuten hasten da, alkoholak eragindako lakartasuna ezagun duena:

**PEDRO (OFF)** -*(Hau izorratzia!*

**AZAFATA (OFF)** -*(Barka, jauna... Zer behar duzu?*

**PEDRO (OFF)** -*(Ezer ez... Bai... Trago bat behar dut... Nahi?*

Norbait botilatik edaten ari delako soinua.

**AZAFATA (OFF)** -*(Ez, eskerrik asko jauna... kontuz jaisterakoan...*

Ironia arin bat nabari da tonu egoki eta profesionalean.

PEDRITO bagoiaren atzekaldeko aterantz lasterka hasi da nasan zehar. Bagoira igo eta korridorean zehar korrika egiten du leihatiletatik bere burua erakutsi nahian, baina txikiegia da eta, kanpotik, ilearen gainekaldea eta gora jasota eragiten dituen eskuak besterik ez zaizkio ikusten.

Aurreko plataformara iritsi eta jaisten ari direnen artean aurrera jotzen ahalegintzen da.  
Nasarantz begiratzen du.

bere AMA ikusten du, begiak atean tinko, markoan ageri den guztiak PEDRIToren gainetik pasatzen dira, honek arreta bereganatu nahian eskuak eragiten segitzen duen bitartean.

Lehengo ahots lakar bera entzuten da berriz ere:

**PEDRO (OFF -.***(Kaixo! Eh!*

### .3AIREPORTUA

Kanpoaldea, egun argiz

Gero eta gertuago dago kristalaren atzetik iristen direnak agurtzen dituen JENDE taldea. Pankarta batek ongi etorria iragartzen du <<Herrimin Maitea>> antolakuntzaren barne. Hurbiltzen arri diren BIDAIARIen artean ere badira zenbait antolakuntza berari dagozkion txartelak daramatzatenak. Kantuak eta txistu soinuak entzuten dira.

BIDAIARIen artean PEDRO dator, pixka bat balantzaka.

Berrogeitamar bat urte ditu. Gorputz handikoa da, nekea adierazten dute bere gorputz jarrerak eta aurpegirak. Bibote mardula. Ez du txartelikaldean baina bai Duty Free boltsa bat besotik zintzilik, eta eskuan erdi ingururaino hustutako whisky botila.

Kritaleraino iritsitakoan harrিতa begiratzen dioten zenbait pertzona agurtzen ahalegintzen da, gartsu bere ahalegin horretan.

kritalari atxekitzen zaio eta mus laztan bat eskaintzen dio EMAKUME BATi, honek txundituta begiratzen diolariak. Gero EMAKIMEAK PEDROren atzetik datorren AGURE BAT agurtzen segitzen du.

AGUREAren gana jiratzen da PEDRO, petaka eskainiz.

**PEDRO -.***Nahi?*

PEDROk kristalaren kontra uzten du gorputza. Tragu handi bat jotzen du, begi zabal tristeeekin.

### .4TREN GELTOKIA, 1945.

Barnealdea, gauez.

Nasaren zolua plataformaren goieratik ikusia.

**OFF)-.**Botilatik edandako likido baten zurrumurra(.

PEDRITO zolura begira dago, koxkarik eta ertzik gabeko txoko baten bila.

**PEDRO (OFF -.***(Hau izorrantzia!*

Bere burua bota egiten du.

Kolpe handia hartzen du, baina inork ez dio kasuriak egiten, ezta mina adierazten duen intziria egiten duenean ere; intziria antzeman egiten da baina aditu ez, aireportuko zaratek estalia.

**OFF) -.**Aireportu barneko gora-beheren zarata. Megafonia, zurrumurrak, oinatzak(...

AMAK berarenganantz zuzenten du begirada, errieta egin nahian bezal, baina, justu orduantxe, beste BIKOTEAK bagoirantz jiraerazten du AMA, han GIZON batek AMArengana jauzi egiten duelarik, besoak zabalik.

**PEDRO (OFF -** *(Zuk ere ez duzu trago bat nahi noski? Jakina... Lanean ari zara... nortasun txartela... ez, ez, daukat...*

AMAK eta GIZONAK elkar besarkatzen dute indar handiz. Gero banandu eta PEDRITOREnganantz datoz.

AMAK altxatzen lagundu eta GIZONAREN aurrean uzten du. PEDRITOK jakinmin handiz begiratzen dio. GIZONAK samurtasunez besarkatzen du. Negarrez ari da, PEDRITO bezala. Horregatik are arraroago aditzen da ahots lakarra.

**PEDRO (OFF -** *(Badakit nireganako ardura ez du zula personala... Baina eskerrik asko, dena dela.*

## .5AIREPORTUA.

Barnealdea egun argiz.

Herrimin Maitea antolakuntzaren ARDURADUNAK harriturik begiratzen dio PEDROri. Teknokrata itxura nabarmeneko gizona da, ATSO-AGUREen artean PEDRO aurkitzeak txunditua.

PEDROk begiradari eutsi egiten dio. Gero azalpena izan nahiko lukeena luzatzen hasten da.

**PEDRO -** *Hain gaizki somatzen zara inork erre-zibitzen ez zaituenean...*

PEDROk bere azalpenean aurrera egiten du ARDURA-DUNAREN begirada tinko eta haserre itxurakoaren aurrean.

**PEDRO -** *Egizu kontu errezibitzera joanda eza-gutu nuela nik aita.*

Eta urrundu egiten da, balantzaka nabarmenegian ez ibiltzeko ahaleginak eginez. Zerbaitekin behaztopo egin eta ia-ia erori egiten da.

ARDURADUNA ATSO-AGURE talde bati lagunduz irteten dela ikusten du, denek destainaz begiratzen dio -telarik. Erorketa belaunikatze bihurtzen da. Zoluari musu ematen dio, azalpena emanez.

**PEDRO -** *Aita Santuaren lana. ...*

Gero, bere artean dagoeneko :

**PEDRO -** *Hau izorratzia!... Ez dago bigarren aldirik amerikanuen bizitzan...!*

Pistan, traktore txiki batek hangareetara daramatza he-gazkinak herrestan

## .6PASAIKO PORTUA

Kanpoaldea, iluntzean.

Merkataluntzi bat irteten da barrarantz.

Harkaitzek, belarrek eta kaiok osatzen duten marinel paisaia gero eta urbanoago bihurtzen da untzia pasatu ahala agerian geratzen den neurrian.

Laster garabien blokea ageri da, eraikuntza industrialak. Untzia, gero eta urrunago, tximinien, zutoinen eta errailen gainetik begiratzen duten etxeetatik ikusia. Tartekako eternaldi luzeen artean, poema bat aditzen da:

**KEPA (OFF -** *(Aingurarik ez loturarik ez bazte- Leihoak itsasora begira .*

Leihoak itsasora begira.

## .7KEPA ETA LURDESEN ETXEA.

Barnealdea, iluntzean.

Leiho ondoan dago KEPA, 28 urte, apur bat zaharki- tutako ikasle itxura. Poema aditzen segitzen da bere aur- pegi negartiaren aurrean.

**KEPA (OFF -.***(Badakit bestelako balioko mone- dak badirela...*

Malkoak tipula minaren ondorio dira.

**KEPA (OFF -.***(Eta badakit alferrik argituko du- tela faroek...*

Poemaren gainetik, gero eta hurbilago aditzen da du- txa baten soinua, korridoretik etorria. Neska gazte bat ikusten da dutxan.

**KEPA (OFF -.***(Ez ezazula espero S.O.S.ik bihotze- tik bihotzera...*

Neska gaztea dutxatik irteten da, gorputza lehortzen. Bainugela guztia lurrunez gainezka dago. Neska gazteak ispilu lurrundua garbitu eta ilea lehortzen hasten da. LURDES da, 25 urte, begi handiak, ederra. Aurpegiera anbigua du sukaldetik iristen zaizkion ber- tsoak entzuten dituen bitartean.

**KEPA (OFF -.***(Urrundik bakarrik dira ederrak moileak...*

Tipula zirtaka ari den gas sukaldearen ondoan kokatu- tako magnetofonitik dator poema.

LURDES sukaldeko ate ondoan dago, ilea orrazten. KEPAREN langintza ikusi eta tonu gogaitu eta tristean galde egiten du:

**LURDES -.***Etorri behar al duzu ala ez?*

KEPA grabagailuan kontzentratua dago, bertatik bira- ka ari diren bobinen dundurioa besterik sortzen ez ba- da ere, ahotsik gabe.

LURDESEK berriro ekiten dio.

**LURDES -.***Etorri nahi ez baduzu, azaldu zaitetz beranduago, betiko lekuetan ibiliko gara...*

KEPAk Stop zanpatzen du lehenengo, eta errebobina- tzailea gero.

**LURDES (OFF -.***(Bakarrik nabil leku guztietan, nazkatua nago beti zure galdea entzun be- harra...*

KEPAk Play zanpatzen du berriz eta LURDESEnganantz jiratzen da ixiltzeko eskatuz—.

**KEPA (OFF -.***(Aingurarik ez loturarik ez-*

LURDESEK leher egiten du.

**LURDES -.***Aizu, Kepa, hizketan ari naiz-l Eta ez dut uste inork lotzen zaitunik!*

**KEPA -.***Lana daukat!*

## .8NIZA HOTELEKO GELA.

Barnealdea, iluntzean.

PEDROren hatza, igorle baten datuak agerian dituen gutunazal bat erregda moduan erabiliz, tdefonoen aur- kitegiko izenak eta zenbakiak pasatzen ari da. Izen ba- ten parean gelditzen da.

Ohe ondoan dagoen maleta zabaldua ikusten dela dis- katzearen soinua aditzen da. Aldamenean beste maleta bat dago, bertatik kanpora irtenda oraindik ere eroske- tako etiketa duten arropak ageri direlarik, eta baita beste gauzaren bat edo beste ere.

PEDRO ohe gainean dago, presbita betaurrekoak jan- tzita, telefonoaren aurrean saiatzen, mikroa eskuarekin estalita. Jostagarritasun triste samar baten distirak argitzen di- tu leunki bere begi uherrak. Komunikatzen ematen du. Eseki egiten du.

Kostata, boligrafo bat ateratzen du poltsikotik eta gu- tunazal zatian telefono zenbakia kopiatzen ahalegintzen da. Ez du lortzen.

Errazago zaio aurkitegiko orrian zenbakia azpimarra- tu eta orria etetea. Poltsikoan sartzen du. Aterantz zu- zentzen da balantzaka nabarmenean.

## .9KEPA ETA LURDESEN ETXEA .

Barnealdea, gauez.

KEPA egongelak lanerako prestatua duen zatian dago, eserita. Zenbait liburu, fitxa eta paper mahai gainean, eta magnetofioia. Liburuak apaletan eta kaxoietan. Itsa- soarekiko lotura duen marrazki bat edo beste. Argaz- kiak mahai gainean.

Egituragatik bertsoak direla antzematen zaien testu ba- tzuen probak zuzentzen ari da.

Play zanpatzen du eta bertsoa entzuten da magnetofioian.

**KEPA (OFF -.***(Ez ezazula espero S.O.S.ik bihotze- tik bihotzera...*

KEPAk magnetofioia azkartu eta grabaketaren azkena bilatzen du. Recording zanpatzen du.

Lurdesen argazkia begiratzen du.

## .10ERREPIDEA

Kanpoaldea, gauez.

Atzean argiztatuko portua ageri delarik, errepedean ze- har doan taxi baten planu orokor luzea.

Taxia espaloi baten ondoan gelditzen da. Atzeko atea zabaldu eta PEDRO irteten da bertatik, gorputz erdia lehenengo, botaka, eta gorputz osoa gero.

Taxia martxan jartzen da berriz, atea zabalik duela, eta urrundu egiten da. Maniobra egiten du norabidea alda- tzeko.

TAXISTA atea isteko aukeraz baliatzen da eta PE- DROrengana itzultzen da. Albotik pasatzean argitu egiten du.

PEDRO bere onera etorri da eta argiztatutako atzekal- derantz zuzentzen da.

## .11KEPA ETA LURDESEN ETXEA

Barnealdea, gauez.

LURDES etxera iristen da. KEPAREN lanerako zatira hur- biltzen da, flexoaren argi piztuak erakarria. Mahai gai- nean, paperak nahas-mahasean eta magnetofioia. Kasete-zinta bat aldamenean.

LURDESEK paperak begiratzen ditu eta kasetea martxan jarri.

**KEPA** -.Urrundik bakarrik dira ederrak moileak. Baina dei egizu, egidazu dei.  
*Izebergak ere mugitzen dira...*

LURDESen aurpegiak halako balaku modu bat adie- razten du .

,12ERREPIDEA.

Kanpoaldea, gauez.

KEPAk kotxea gidatzen du portua inguratzen duen erre- pidean zehar. Bat batean txorimalo bat irteten da bide erdira, autoaren argi-izprietan bete-betean sartuz. KEPAk zakarki frenatzen du besoak laguntza eske astintzen dituen pertsonaia errukarri baten aurrean, zapata eskuan eta jaka erdi eroria.

PEDRO da. KEPAk leihatila zabaltzen du zuhurki. PEDRO hurreratu egiten zaio.

**PEDRO** -.Istripu bat... istripu bat...

KEPAk bat bateko maniobra zakarra egiten du autoa bide bazterreko arekan kokatzeko. A.-^toitik irtetu ca, linterna eskuan duela.

**PEDRO** -.Eskerrik asko gazte...

**KEPA** -.Non daude?...

KEPAk biak ertzeko anihildegm argitzu du. Ez dago is' tripu baten aztarnarik.

**PEDRO** -.Taxisista madarikatu horren kulpagatik...

KEPA PEDROrengana jiratzu da. Linternarckin argi- tzen du. Bere itxura narraza eta errukarria da, zapata oreka galdu gabe jazteko ahaleginetan.

**KEPA** -.Atropellau egin zaituzte? Ongi zaude?

PEDROk aurkitegiko orri zimurtuta ateratzen du bere erdi jantzitako jakaren poltsikotik

**PEDRO** -.Eramango al ningukezu?

**KEPA** -.Goazen... Gurutze Gorrira eramango haut...

**PEDRO** -.Ez... etxera... Hor daukazu helbidea...

KEPAk harritura jasotzen du PEDROk luzatazen dion papera. Argitu egiten du zera esanez:

**KEPA** -.Holakoetan hobe zenuke lepotik zintzilik eraman...

**PEDRO** -.Familia lasaitu nahi nuke...

KEPA begira geratzen zaio, eta erabaki egiten du.

**KEPA** -.Tira, tira... Igo.

.13KOROREN ETXEAREN AURREKALDEA.

Kanpoaldea, gauez.

PEDRO atariraino iristen da.

KEPA kotxe barrutik begira geratzen da.

PEDRO atariko interfonoaren aurrean dago. Emaku- me ahots batek urruma egiten du.

**KORO (OFF -)** *(Nor da?*

**PEDRO -** *Koro... Koro... Irekiko al didazu? Pedro naiz!*

PEDROk giltzak ahaztu dituenaren tonu naturalean egi- ten du hitz.

Isilune luzea dago. PEDROk botoia zanpatu berriz eta mindurik hitz egiten du.

**PEDRO -** *Barkatu, Koro... Bueno... Nizan nago... Hotelean... Gaur heldu naiz... Barkatu... Ga- bon Koro...*

Ez dago erantzunik. PEDROk etsi egiten du.

,14KOROREN ETXEKO INGURUAK.

Kanpoaldea, gauez.

Kotxe barrutik, motorra eta argiak itzalita, KEPAk PE- DROri begiratzen dio, hau Kororen etxetik oinez urrun- tzen den bitartean.

KEPA PEDROren parera iritsi eta leihatiletan zehar hiz- ketan hasten zaio.

**KEPA -** *Denak berdinak direla eh? Piska bat be- randutzea nahikoa dute...*

PEDROk bere baitan barnebildurik erantzuten dio.

**PEDRO -** *Bai... Ni ordea hogeit hamar urte dira irten nintzela...*

KEPAk irribarre egiten du eta ironikoki galdetu:

**KEPA -** *Zaborra jaistera?*

PEDROk lehengo tonu barnekoi berean erantzuten du.

**PEDRO -** *Mejikora!*

Aitorpenak kutsu nostalgikoa du. PEDRO hotzak ika- ratzen dago.

**PEDRO -** *Me tomaria una sopa de medula.*

KEPAren jakinmina handitu egiten da. Zalantza pittin baten ondoren, gonbidatu egiten du .

**KEPA -** *Hori zaila... baina beharbada utzi digu- te zer edo zer...*

Erlojuari begiratzen dio.

**KEPA (OFF -)** *(Sartu!*

.15ELKARTE GASTRONOMIKOA ,

Barnealdea, gauez.

Sukaldea jaso gabeko kazolez, plateraz eta edalontziz

betea dago.

KEPAk kazolen eta lapikoen barruak ikertzen ditu. Erdi hustutako txipiroi kazola batean sartzen du hatza. Ahora eraman eta probatu egiten du.

Sua piztu eta kazola berotzen jartzen du.

Bi plater garbi eta mahaitresna batzu hartu eta jangela- rantz doa.

Zikindutako zapiek eta mantelek estaltzen dituzte ma- haiak.

Horietako baten gainean dago etzanda PEDRO, burua atzerantz zintzilik.

Begiak paretatik esekita dagoen Pasaiako marrazki an- tigoaleko batean iltzatuak ditu.

Alderantziz ikusten du.

Nekez altxatu eta oinak zolu gainean jartzen ditu. Kan- tuan segitzen du:

**PEDRO**.-... *termine llorando a mares...*

KEPA mantel bat garbitzen hasten da, axaletik, ogi apu- rrak eskuaren kolpe batekin kendu eta gero teink egi- nez. Platerak utzi eta PEDRO egiten ari dena begiratzeko du, honen suntsipena.

**KEPA** -.Aizu... zu... *nola heldu zinen Mejikora ?*

**PEDRO** -.Abioiez...

Barre egiten du burua astintzen duen bitartean. Pixkana- -pixkanaka argitzen ari da .

**KEPA** -.Ez, egitan... *Zer zinen... exiliatua, emi- grantea, pelotaria, edo zer?*

**PEDRO** -.Itoa... *Ito behar existentziala! Horixe da inmigrazioko funtzionarioei esan niena!*

Polizia mexikarraren harridura imitatzen du.

**PEDRO** -.*Pos cual ahogo?*

Gero tonu normalera bihurtzen da.

**PEDRO** -.*Eta egia zen... Baina ez zidaten sinis- ten.. ez haiek, ez inork.*

KEPA serio jarri da.

**KEPA** -.*Nik sinisten diat...*

Bere esaldia herabetasun ikaragarri amaitzen du, oso behean, ia-ia bere kasa.

**KEPA** -.*Niri ere berdin gertatzen zaidak...*

Baina PEDROk ez dio kasurik egin honen konfidentziari. Zirgitegin eta uste osoz eta halako ponperia batez baieztatu du.

**PEDRO** -.*Itzuli egin naiz behintzat, eta hori da inportanteena!*

KEPA gelditu egiten da bere lanean eta oihu egiten du, bat bateko sumindura bortitzean, hain nekez egindako

konfidentziari PEDROk kasurik ez egiteagatik neurri handi batean.

**KEPA** -.*Hara bestea! Inportantea norentzat!!*



PEDROrengana hurreratzen da, saminki erasotzeko.

**KEPA** -.*Noski... inportantea da zuek bueltatzea guri gelditzeko esatera...*

PEDRO berriz ere marraskia jiratzen ari da. KEPA botatzen ari den zakarkeriak iristen zaizkio:

**KEPA** -.*Mundu guztiak dauka itzultzeko eskubidea!! Eta aldegitikoa!! Baina, gutxienez, aprobetxa ezazue bidaia zer edo zer ekartzeko...! Ordain ezazue zerbait!*

PEDROk KEPAren azken hitzen aurrean erreakzionatzen du. Poltsikoan bila hasten da esaten duela:

**PEDRO** -.*Zer zor diat taxia, gazte?*

KEPAk zalantza erakusten du une batez eta ondoren PEDROrengan izango duen eraginaz seguru dagoela erakusten duen tonuan erantzuten du:

**KEPA** -.*Ezer ez... hemen ambulantiak dohan dira hirugarren adinekoentzat...*

PEDROk minduta begiratzen dio KEPAri honek mesprezuz amaitzen duen bitartean:

**KEPA** -.*Jubilatu artaldea!*

PEDROk, bat batean, belarrondoko izugarria ematen dio.

KEPA harrituta geratzen da, erreakzionatu gabe.

PEDRO jolpearen bueltaren zain dago. Tentsioa bizi da une batez. Azkenik, KEPAk burua makurtu eta amorru bizian oihukatzen du:

**KEPA** -.*Artaburua!*

Sukalderantz urruntzen da.

PEDROren aurpegierak harridura eta ondoeza adierazten du.

Sukaldean, KEPAk ez daki zer egin, erdi amorratua erdi etsia. Txipiroi kazolari lurruna dario, KEPAk sua itzaltzen du. Gero bere erlojuari begiratzen dio.

Sukaldeko irratia pizten du. Berrien aurretiko sintonia emititzen du.

Lehenengo berria, ia beti bezala, biolentziaren gaiari buruzkoa da.

KEPAk bolumena goratu egiten du, PEDROri oihu egiten dion bitartean.

**KEPA** -.*Ez baldin bahekien, hemen aski diagu gerra batekin.*

PEDRO hurbildu egiten zaio.

**PEDRO** -.*Emidak hire telefonoa... Beharbada bihar barkamena eskatuko diat...*

Telefono aurkitegiko orri zimurtua luzatzen dio.

KEPAk bere buruaz barre egiten du bere zenbakia idazten duen bitartean.

,16KEPA ETA LURDESEN ETXEA.

Barnealdea, gauez,

Sarrerako atea zabaldu eta KEPA ageri da. Sarrerako argia pizten du. Umore txarrean dator. Itxi egiten du. Logela aldera begiratzen du, Atea ertirekia dago. Egon- gelarantz ibiltzen hasten da. Atzean LURDES ageri da, kamisoia jantzita ,erdi lotan.

**LURDES** -.Kepa... Kepa... deika ari naiz...

Ez da jiratzen eta LURDESi berarengana iristen uzten dio.

**LURDES** -.Hunkitu egin nau... poemak.

KEPA jiratu egiten da. LURDESek KEPAk begian duen kolpeari erreparatzen dio.

**LURDES** -.Zer egin duzu hor?

KEPAk bakarrikzeta batez erantzuten dio:

**KEPA** -.Artaburua! Korajia aldegitoko bakarrik behar balitz bezala...! Eta hemen gelditze- ko ez al da behar, eh?

LURDESek ez du ulertzen KEPAREN haserrea.

**LURDES** -.Zertan ibili ote zara?...

**KEPA** -.Zaborra jaistera joan naiz! Baina ez Me- jikoraino!

Irribarre egiten du bere kasa. LURDESek ez du ulertzen. KEPA haren begiradan murgiltzen da.

**KEPA** -.Gelditzen banaiz, gelditzeko da.

Besarkatu egiten du, pasio handiz. Logelan sartzen dira.

## .17KONTXAKO IBILTOKIA.

Kanpoaldea, egun argiz.

Olatuak apalkiro apurtzen dira eguerdi lainotsuan.

Gorago «baranda, tamarindoak «Ibiltokia ia-ia bakar- tia ordu hauetan, terrazak eta Niza hotdaren aurrekal- dea...

Oso leun aditzen da berrogeitamarreko hamarkadako musika maitekorra») Perfidia ,(«zabaldutako leiho ba- terantz igotzen goazen neurrian galduz doana. Leiho- tik hainbat zarata irteten da:

**OFF**) -.Telefono txirrina, dutxa... oihu bat (.  
**PEDRO** (**OFF**; -.**(Va!!...**

**OFF**) -.Errori egiten den norbaiten burrunba, erortzerakoan berarekin batera hainbat gauza boteaz, oihu gehiago(.  
**PEDRO** (**OFF**; -.**(Pinche cable!!**

Txirrina ixildu egiten da eta ahotsa entzuten segitzen da:

**PEDRO** (**OFF** -.**(Bueno...**

Gero, pozkario handiz:

**PEDRO (OFF -.(Koro!!!**

.18NIZA HOTELEKO GELA.

Barnealdea, egun argiz.

Ez da oso erromantikoa PEDROren egoera, telefonoz hitz eginez zoluan, erabat bustia, eskuoihal soil batek estalia, gosari zerbitzu baten hondarrek inguratua. Moketa zikintzen duen kafetan aspirina ilada bat ari da bustitzen.

**PEDRO -.***Nolako poza!...*

Gero KORO palter hautsien kraskatekoei buruz egiten ari bide zaion galderei tonu lasaran erantzuten ahalegintzen da...

**PEDRO -.***Zalaparta? Ez... paper zahar batazuk begiratzten... oroitzapenak etea chingada hori...  
Bai, bai, hamar minutu... Segituan nago hor.*

Esekitzekotan da baina damutu egiten zaio. Ia oihu egiten du:

**PEDRO -.***Aizu Koro... atzokoa esplikatuta nahi nizuke... bart arratsekoa... Pentsa... emozioa*

Azken esaldiak alferrikakoak dira. Aparatua esekitzeari dagokion klaskada entzuna zen jada alde zurririk. PEDROk eres eseki egiten du eta altxatu egiten da, bere mugimenduan ontziteria puska batzuek elkar jotzera bultzatuz. Zarata jasanezina egiten zaio. Burua estutzen du eskuekin.

Zolutik aspirina batzuek hartzen ditu, isuritako kafearen gainean desegiten ari direnetakoak, eta kolpe bakar batean irensten ditu. Bainugelara konketatutako txorrota zabal-tzen du. Ispilu aurrean begiratzten du bere burua. Apaindu egiten da. Kolirioa ematen du begian

.19NIZA HOTELA. SARRERA ETA TERRAZA .

Barnealdea, egun argiz.

Pertsona dinamikoaren itxura eginez, PEDRO hotela-ko sarrera zeharkatu eta harreralekurantz doa. Bide erdian eguzkitako betaurrekoak erazten ditu, betzuek jartzen du ikaragarria iruditzen zaion argitasunaren aurrean eta berriz ere jantzi egiten ditu betaurrekoak, etsipenezko keinu baten ondoren. KORO du zain, 45 bat urteko emakumea, edertasun dotore eta diskretukoa. Berarengana iristen denean, PEDROk besoak zabaltzen ditu, pozkarioz. KOROko moztu egiten du, eskua luzatuz. Elkarri eskua eman ondoren, berehala, atzera kentzen du eskua KO-ROK. PEDROk betaurrekoak erazten ditu. Ajeak minututako bere aurpegierari hunkitutako itxura ematen ahalegintzen da.

**PEDRO -.***Koro... hau poza... Nola zaude eh, no- la zaude...*

KOROk ez dio biderik zabaltzen PEDROk eginahalak eginez lortu nahi duen giro hunkigarriari.

**KORO -.***Bi gauza esateko etorri naiz bakarrik...*

Inguruetara begiratzten du, toki diskretuagoren baten bila bezala.

Berehala mahai baten inguruan eserita daude, kristalez inguraturiko terrazan, tamarindoen pasealekua baino pixka bat altuxeago bakarrik .

ZERBITZARIA aginduen zain dago.

**PEDRO** -.Zerbait hartu nahi?

KOROk ezetz esaten du buruarekin. Esan behar duena esateko amorrten dago. ZERBITZARIAri zuzentzen zaio PEDRO:

PEDRO.- Boteila bat ur, gasarekin...

KOROrengana jirutzen da alferrikako azalpen batean:

PEDRO.- Gutxiago edaten dut orain...

ZERBITZARIAk alde egin orduko, KORO hizketan hasten da, tonu estu eta urdurian:

**KORO** -.Lehenengo, ez naizela gustoz etorri, ez dizudala telegramarik eta ezer jarri... Nire amamren gauzak dira denak...

**PEDRO** -.Koro, nik...

**KORO** -.Bigarrenago, hemen ez dela gauean telefonoarekin jolasean ibiltzen... Nahikoa alarama baditugu ni bezala gaudenak... ni eta Paula bezala...

KOROren tonuak PEDROren alaitasun hondarrak ahitu ditu, baiian hala ere berriro ekiten dio eginahalean.

**PEDRO** -.Bai... PAula. Nola dago? Noiz bisita dezaket?

KOROk lehor erantzuten dio.

**KORO** -.Nire ama amorratua dabil Pauala nola edo hala ateratzeko eta uste du zk lagundu ahal izango diozula.

PEDROren atsekabea benetakoa da:

**PEDRO** -.Nik?... Hogei urte badira es dudala Paularekin hitzegin, bizitza osoa ia, eta kartak

**KORO** -.Ex dihoa hortik... Nire amak nahi duena da reinserta dezatela behartuta baldin bada ere, eta horretarako zuk zure lagun zaharrekin hitzegitea... orduko gorriak...

Gobernuan daude denak, zeran, dauzkagun gobernuetako batean...

Bertan hausteko zorian dago. Gero eta handiagoko tristura batek hartzen du bere azken hitzen tonu sarkastikoaren lekua.

**KOKO** ... -.Batzutan pentsatzen dut ez ote zen hobe zuk egin zenuena...

Malko bat ageri zaio, esan duenaren pisuaren aurrean.

Beste batzuek datozkio atzetik, masailak ureztatuz apalki.

PEDRO pot egina dago. Ez daki zer egin. Samurtasunaren bidea aukeratzen du. Leun-leun esaten du, tamarindoak erakutsiz:

**PEDRO** -.Ibiliko al gara piska bat?...Umetan bezala... tamarindoetako Erreginarekin pseatzeko ohorea nuenean bezala...

## .20KONTXAKO IBILTOKIA

Kanpoaldea, egun argiz.

Irten orduko, PEDRO KOROri bere onera etortzeko lain asti emango dion zerbaltzen bila hasten da. Broma samur bat hasten du, tamarindoz inguratutako karrilak seinalatuz:

PEDRO.- Hemendik mutilak... hemendik nes- kak... Eta parejak hemendik...! Ze arraroa egiten den goizez!

Bikoteen karriletik dabilta. KOROk utzi dio negar egiteari, baina estu eta urduri dago oraindik. PEDROk berriz ere gaiari ekitea erabakitzen du, leun, ezti:

**PEDRO** -.*Eta atera al liteke? Zoragarria izango litzateke... Beharbada nik egin dezaket zerbait... Noiz ikusiko nuke?*

KOROk leher egiten du ordura arte gorderik zuen in- dar eta oldarrez:

**KORO** -.*Zertarako?.. Ez duzu ezer ulertzen! Nik uste dut gure alabak... neure alabak pen- tsatzen baldin badu preso egon behar due- la, ba eskubide osoa daukala hala egoteko.*

Bere amorrua mamiago egiten da, barnerakoiago. Hi- tzek PEDRO kolpatu egiten dute, gero eta larrituago sen- zerazten dutelarik.

**KORO** -.*Hortantxe saiatu naiz biok utzi gintu- zunez gero... bizi nahi duena bizitzen la- guntzen... Paulak bere ideia eta bere senti- menduak ditu... eta ez berak bakarrik... jende gehiagok ere bai... Eta beste moral bat! Zu ez zara hemen aspaldian izan!*

PEDROri begiratzeko dio, gogortasunez, eta zalantza iz- pirik gabe, determinazio osoz, esaten dio:

**KORO** -.*Pedro, mesedez eskatzen dizut, ez eza- zula Paularen bizitza bigarren aldiz hondatu!*

Negarrez hasten da berriz eta ia-ia korrika alde egiten du. PEDRO bakarrik geratzen da, nahastua. Urrats batzu egiten ditu baranda alderantz. Plaza hutsera begira ir- teten da.

Erabaki bat hartzen du. Paper batzu atera poltsikotik eta horien artean telefono aurkitekigo orri zimurtua bi -

latzen du, telefono kabina baterantz ibiltzen hasten den bitartean.

Figura txiki bat besterik ez da, tamarindoen ondoan, barandaren ondoan, eguerdiko zeru lainotuaren azpian hondarraren kontra hausten diren olatuen ondoan. KORO urrunduz doa.

PEDROk kabinako telefonoan, orrian apuntatutako zen- bakia markatzen du.

## .21PASAIKO PORTUA

kanpoaldea, iluntzean.

Guztiz bestelako paisaia da. Itsasoa zeharo koipetsua ikusten da.

Garabiak eta tximiniak ageri zaizkigu tamarindoen or- dez.

PEDRO horixe ari da ikusten. Zigarro bat erretzen du, pentsakor.

Bere atzean ahots bat entzuten da.

**LURDES (OFF** -.*(Kaixo... Zu Pedro izango zara noski?*

PEDROk jiratu eta baietz dio, era mekanikoan.

**PEDRO** -.Kaixo... Bai, eta zu Keparen emaztea ...

**LURDES** -.Lurdes naiz.

Orain arreta handiagoz erreparatzen du Lurdesen gaz- tetasuna eta edertasuna. Estimaz begiratzen du. LURDES apur bat lotsatu egiten da begirada horren aurrean. Ibiltzen hasten da, desmarkatzeko.

**LURDES** -.Euskaltegia hor bertan dago... Horregatik zitatut zaitut hemen... Kepa berehala aterako da...

**PEDRO** -.Ze jatorra den... Ikusi baninduzu bart...

*A ze gaua... eta a ze goizaldea!*

LURDESek errepikatu egiten du akenekoa, tonu arraro eta tristean:

**LURDES** -.Bai... a ze goizaldea...

Berehala gaia aldatzen du:

**LURDES** -.Asko kostatzen al zaizu lekua aurkitzea?

**PEDRO** -.Ez asko... Ez nintzen sekulan hona etorri baina.

LURDESen atzetik ibiltzen hasten da, aire erromanti-ko antzeko batez.

**PEDRO** -.Aurrerago etortzen ginen umetan, arro- ketan bainatzera eta hoia» ...Gizonezkoen gauzak«...

LURDES urduri samar dago PEDROren tonu addtsua eta begiradak direla eta. Bere parean jartzeko ahalegi- na egiten du, koketeria apur batez galdetuz:

**LURDES** -.Andregaiarekin?

**PEDRO** -.Ez, ez... harekin goizetan izaten zen, hondartzan... Pentsa ezazu... Familiaren tol- dopera...

LURDES pozik bere amarruaz. Irribarre egiten du.

**LURDES** -.Andregaia zenuen orduan... Formala?

**PEDRO** -.Beharko... Ezkondu ere egin ginen... pe~ naltiz... orduan askotan gertatzen zen... zai- lena maitasuna egitea zen, baina lortzen hn- zenuen, ai!... Nirea txorta bakar belaunaldia da...

LURDESek ez dio barrerik egiten txisteari. Serio gal- detzen dio:

**LURDES** -.Emaztea eta haurra... Eta Mejikora joan behar izan al zenuten?

Harrituta, PEDROk jakinminez begiratzen dio. LURDESek azalpena ematen du:

**LURDES** -.Kepak zer edo zer esan dit... Inpresio- natua daukazula ematen du...

**PEDRO** -.Ya... Ez, bakarrik joan nintzen.

**LURDES** -.Zergatik?

PEDROri ez zaio atsegin solasaldiak hartu duen bidea. Garratz samar erantzuten du:

**PEDRO** -.Ez dakit, beharbada ea bigarrena jotzen nuen...

Gehiegikeria nabarmena izan dela ulertzen du. Kome- dia galanteko tonura itzultzen da berriz, barkamen es- ke bezala.

**PEDRO** -.Barkatu... ez zait oraindik atxurra pa- sa nonbait... Hain gazte eta polita ikusten zaitut...

Baina adeitsua baino areago tristea da bere tonua. LURDESek berriro ekiten dio:

**LURDES** -.Eta zer gertatu da haiekin? Non bizi dira ?

PEDRO hasierako tonu mingarrira itzuli da berriz. Larri erantzuten du.

**PEDRO** -.Hemen, hemen... Dena dela , denbora asko pasa da...

## .22EUSKALTEGIAREN AURREKALDEA.

Kanpoaldea, egun argiz.

KEPA euskaltegitik irteten da adin ezberdinetako ikas- lez inguratua, emakume gazteak gehienbat. LURDES eta PEDRO iristen dira, eta zain geratzen. KEPA harri- tu egiten da haiek ikustean. Bere ikasleak agurtzen ditu azkenik, landu beharreko ariketei buruzko azalpenen bat emanez. PEDRO eta LURDESenganantz dator.

**KEPA** -.Kaixo kaixo...

**LURDES** -.Honek zurekin hitzegin nahi omen du...

KEPAk ez du erantzuten. PEDROk aire adiskidetsua hartzen du.

**PEDRO** -.Bai... Aizu, ba... aholku bat behar nu- ke, gauza handirik ez...

KEPAk oldarkor erantzuten du:

**KEPA** -.Jubilazioaz? Egiteko urgente bat dau- kat...

LURDESek parte hartzen du, presaka hau ere:

**LURDES** -.Eraman autoa... ni autobusean joan- go naiz...

**KEPA** -.Itxoin... Hospitalean utziko zaitut, in- prentara bidean daukagu ...

PEDRO garraio arazoaren inguruan sortu den nahas- ketaren errudun sentitzen da, eta barkamena eskatzen ahalegintzen da.

**PEDRO** -.A izue... nik ez nizueke iraba egin nahi ...

LURDESek lasaitu egiten du:

**LURDES** -.Ez apuratu...

Ondoren KEPARI zuzentzen zaio, lehor, giltzak eskainiz:

**LURDES** -.Hartu giltzak... Nahiago dut Inesekin joan... Hitzegin beharra daukagu...

KEPAk kolpea hartuz bezala erantzuten du:

**KEPA** -.Ya...

LURDESek eskua luzatzen dio PEDROri, agurtzeko, eta : hau besoak zabaldu eta deklamatzeko hasten da:

**PEDRO** -.Ulertzen dut... Emakumezkoen gauzak...

Eta LURDES besarkatzen du leunki, bi masailetan musu. 3 emanaz. LURDES aztoratu egiten da eta era traketsan erreazionatzen du:

**LURDES** -.Hurrengo bat arte...

KEPAk buruarekin agurtzen du, eta LURDESek doi-doi lortzen du ahoskatzea:

**LURDES** -.Bihar arte.

Urruntzen ari den bitartean, PEDROk estimaz begira- tzen dio. KEPAk» esnatu «egiten du.

**KEPA** -.Ba hator ala...

PEDRO KEPArenganantz jirutzen da; KEPA urrats ba- tzu ematen hasia da dagoeneko.

**PEDRO** -.Aizu... zuk ongi ezagutzen duzu herri hau ezta?

**KEPA** -.Bai... eta herritarrak ere bai.

PEDROk zerbait gogoratzen duela dirudi, KEPA aurrez aurre ikustean. Begi errea ikusten dio. Bere eguzkitarako betaurrekoak atera eta eskaini egiten dizkio.

**PEDRO** -.Hartu, desenkusa bezala.

KEPAk ez ditu hartzen.

KEPA.- Nahiago diat kolpea zor izatea ...

PEDRO.- Baina zu ez al zara beste gerra batekoa?

KEPAk ez du erantzuten. PEDROk berriro ekiten dio:

**PEDRO** -.Hartu itzak, ez ergela izan.

**KEPA** -.Bestela haserretu eta jo egingo didak os- tera noski. Bueno, bakeagatik. Baina zor diat koipea .

## ,23INPRIMATEGIA.

Barnealdea, iluntzean.

PEDRO paretetan esekita dauden kartel ugarietako begira dago: publizitatea, erakundeen iragarkiak, kartel poli- tikoak eta erreibindikatiboak.

Azken hauetan erreparatzen du astiroago.

Bien bitartean, JULEN eta KEPAREN arteko solasa en- tzuten da:



**JULEN** -.*Ea nolakoa den bukaera hori:*

*»Baina dei egidazu Egidazu dei*

*Izebergak ere mugitzen dira Egidazu dei itsaso honen hondoraino Uhinak bezala suntsitua Altxako naiz«*

*Azkena, baina ez txarrena!*

**JULEN (OFF** -.*(Zer egiten ote du hi bezalako poe- ta batek maximalista tropa horrekin. Titu- lua erabaki duk?*

**KEPA (OFF** -.*(Bai... lehengoan negok...*

**JULEN (OFF** -.*(Naufragioa?*

**KEPA (OFF** -.*(Txipia... Naufragio Txipia...*

PEDRO orain begiraten ari den kartela aurpegiera hi- tsez, burdinsarez eta heriotz zeinuz osatutako konposaketa dramatikoa da.

Jiratu gabe egiten du hitz:

**PEDRO** -.*Horrenbestearaino ailegatu behar al da?*

Besteek ez dakite zertaz ari den eta ez diote erantzunik ematen. PEDRO jiratu egiten da eta berriro ekiten dio:

**PEDRO** -.*Esan nahi nuke... Zure herriak onar- tzeke kartzelan usteldu eta hil egin behar duzun...*

JULENen erantzuna ironikoa da, nabarmenki:

**JULEN** -.*Heroetzat onartua izateko, bai.*

KEPA koloreei begira dago, horretan kontzentratua di- rudi, baina besteen arteko solasaldia ere entzuten du.

Mahaiko argiak behetik gora argitzen dio aurpegia.

**PEDRO** -.*Baina... sufritzeari uztea eskubide bat da...*

**JULEN** -.*Baina hemen mortifikatzea saritzen da. Kilometro gehiena korritzen dituen da ikastolen laguntzailerik handiena, aisla- mendu zeldatan hilabete gehiena agoanta- tzen dituen da iraultzaileena...*

KEPAk eten egiten du, lasai, burua altxatu gabe.

**KEPA** -.*Kartzelan badago irtetzeko sartu ez den jendea.*

**PEDRO** -.*Horrek erlijio kutsua du...*

KEPAk begirada jaso eta PEDROren aurrez aurre ezar- tzen du. Tonua goratu egiten du.

**KEPA** -.*Edo duintasun kolektiboarena. Mejikon ez al dago?*

**JULEN** -.*Hik ongi dakik, Kepa, horretan, bakar batzuek erabakitzen dutela guztien ordez.*

PEDROri argitzen dio:

**JULEN** -.*Erabaki pertsonala debekatua dago.*

KEPA orain sarkastikoa da:

**KEPA** -.Erabaki pertsonalak baldin bada kontua, ze arraio ari zarete! Zuek nahi al duzue damutu? Zertaz?

**JULEN** -.Hemen inork ez du aipatu damutzea...

KEPAk eten egiten dio, bere onetik irten beharrea

**KEPA** -.Baina torturatzen zaituena gero damu- tu zaitetzela esateko, bai! Eta hori, Julen, ongi dakik hik.

PEDROk interes handiz segitzen du eztabaida. Batez ere KEPARI begiratzen dio tinko; ohizko ironiaren ordeztaz azaleratu zaion amorrua harrigarria zaio. Larritasuna gero eta nabarmenago zaio aurpegieran. Zakarki eteten die eztabaida.

**PEDRO** -.Trago bat behar dut... Izango da taber- naren bat hemen...

**JULEN** -.Poligonoaren beste aldean.

KEPA PEDROren aurpegiera nahigabetuaz ohartu da. Bere betiko tonura itzultzen da:

**KEPA** -.A ze aurpegia! Bota egin behar baduzu...

apunta ezazu beste aldera!

**PEDRO** -.Ikusiko gara...

Eta irteerantz doa urrats handiak eginez. KEPA mailartera irteten da:

**KEPA** -.Itxoin... elkarrekin joango gara... Oraintxe hitzegingo dugu...

Baina PEDROk aurrera segitzen du bere martxan. Patetikoa gertatzen da makinaren arteko bere irteera .

Giroaren etsaigoa eta zakartasuna edota bere ulertezintasuna sentitzen duen bakoitzean izan ohi duen adoregabezia eta etsipena adierazten ditu bere aurpegierak .

## .24DISKOTEKA

Barnealdea, gauez.

PEDRO jiratu egiten da, ukondoak barran bermatu eta lekua begiratzen du. Arropa aldatua du. Nahikoa edana dago, Musikaren erritmo gogorrari jarraiki dantzan ari dira GAZTE ugari.

Guztiak KEPA eta LURDESen inguruko aldean oso bestelako jazkera dute, munduko edozein diskotekatako gazteen antzekoagoa.

Barran dagoen emakume bat da salbuespen bakarra, PEDROrengandik metro gutxi batzutura kokatua. Berrogeitamar bat urte ditu, ondo jantzia dago. Bere aurpegi atseginean bi betazpi eskerga nabarmentzen dira.

PEDROk jakinminez eta elkartasunezko nolabaiteko interesez begiratzen dio, bera bezala hura ere girotik kanpo bait dago.

Emakumeak, PILARrek, PEDROren begirada hartu eta jasotzen du, eta berarengana hurreratzen da.

**PILAR** -.Ordainduko al zenidake kopa bat?

PEDROk interesa galdu egiten du, proposamenaren profesionaltasuna dela eta.

**PEDRO** -.Alkoholaren aurka nago!

Bere whiskyrantz jiratzen da. PILARrek bere ondoan jarri eta eskuan mila pezetako biletea ezartzen dio.

**PILAR** -.Ordain dezaket, aizu. Ilusioa egiten dit ordea bestek gonbidatzea... laguntzaren antzekoa da.

PILARren jarrerak eta bere tonu mingotsak PEDROren interesa berpizten dute. Biletea itzultzen dio eta ZERBITZARIAri zeinu bat egiten.

**PILAR** -.Ez naiz puta, bizi-alarguna naiz... hirurogeikadakoa...

**PEDRO** -.Ni bezala... Larogeikadakoa ere bai ni

Bat bateko premia sentitzen duela dirudi.

**PEDRO** -.Non dute telefonoa?

**PILAR**>> -.Esperantzarena>>?... Ez dute erantzungo garai hauetan... Obra onak goizez egiten dira... Hor, irteeran... Ez duzu hanka egingo ezta?

**PEDRO** -.Ez, segituan nator.

Keinu batez ZERBITZARIAri koparen ardura berea duela adierzten dio eta telefonoetarantz doa bidea zabalduz.

PEDROk kabinan LURDES lasaitzeko eginahalak egiten ditu, beldurtu egingo bide bait zen hau.

**PEDRO** -.Lurdes, ni naiz... Pedro... Ez, es nago Keparekin, ez da ezer... Zurekin hitzegiteko gogoia nuela, besterik es...

Etenaldia egiten du:

**PEDRO** -.Bai, konturatzen naiz lanean ari zarela... Ezetz, ez nagoela edana... burutik, izan liteke...

Kristaletik zehar PILAR ikusten du, besoa altxatuz zai daukala adierazteko

**PEDRO** -.Lurdes... zenbat urte dituzu? Hogeitabost! Gaiztoak zarete!... Bueno, uzten zaitut lan egiten.

,25OSPITALEA.

Barnealdea, gauez,

Korridore luze eta hutsa ikusten da.

LURDESek telefonoa esekitzen du aurpegiera ambiguo  
erakutsiz.

Korridore zuria zeharkatzen duen bitartean irribarrea sortzen zaio pixkana-pixkanaka.

Gela batean sartzen da. Gelan INES eldarniotan ari den ATSO GAIXO bat lasaitzen ahalegintzen da.

**ATSO GAIXOA** -.Ikusiko duzue ni faltatakoan, ikusiko duzue ni faltatakoan...

**INES** -.Zerbait gertatu da.,,?

**LURDES** -.Ez, ez.,,

**INES** -.Halako sustuak hartzen ditu batek ...

**LURDES** -.Ezer ez .,, ganorabako bat... eta hemen, zertan gara?

INESek bere Ieloa etengabe esan eta esan diharduen ATSO GAIXOA seinalatzen du, bi neskak garbitzen saiatzen diren bitartean:

**INES** -.Hau parlammtaria...! Atsoena izugarria da...

**LURDES** -.Gizonezkoek ere deliratzten dute...

Eta eldarnio etengabe segitzen duen ATSO GAIXOaren aurpegi erkinari begira geratzen da.

**ATSO GAIXOA** -*Ikusiko duzue ni faltatakoan, ikusiko duzue ni faltatakoan ...*

## .26DISKOTEKA.

Barnealdea, gauez,

PEDRO eta PILAR salara itzultzen hasten dira. GEro eta indartsuago datorkie handik musika sinkopatua. PEDROk bere edalontzia hartu eta whiskya edaten du, galde egiten duen bitartean:

**PEDRO** -*Zenbat urte dituzu?*

**PILAR** -*Zakila!*

**PEDRO** -*Somatu bezala... nik adina, gutxi gora behera.*

Dantzan ari direnen ondoan daude dagoeneko. Musika benetan zaratzua da.

**PEDRO** -*Egingo al dugu dantzan?*

**PILAR** -*Hemen?*

**PEDRO** -*Noski... Ez al duzu gustokoa? Zertara etortzen zara orduan?*

PILARrek ia-ia gorrotoz erantzuten du, rock-arekin astitzen diren GAZTEei buruz ari delarik.

**PILAR** -*Hauek ikustera!*

PEDROk irribarre egiten du PILARren gorrotoaren kontura, gero eskuekin hartzen du eta chick to chick-aren tradizioz estuenean hasten da dantzan.

Harrigarria gertatzen da beren mugimendu makal geldoa erotutako inguru hartan. PEDROk PILARri ezpainak belarrietara atxekiz egiten dio hitz:

PEDRO.- Ez, kasorik egin... Pentsa ezazu <<Perfidian.<<

Leun-leun xuxurlatzen dio kantua.

**PILAR** -*Norekin ari zinen?*

**PEDRO** -*Lotsagaldu batekin... Pentsa... hogeitabost urte...*

**PILAR** -*Alaba?*

**PEDRO** -*Ez, es...*

Ez zaio gustatu gogoeta. Dantzan segitzen du, aurpegia uzkurtuta.

## .27KEPA ETA LURDESEN ETXEA.

Barnealdea, egun argiz.

Telefonoaren mahaitxoaren gainean liburu baten azalaren koloretako probak daude: NAUFRAGIO TXIPIA Kepa Errasti. Telefonoak jotzen du.

KEPAk sartu eta hartu egiten du.

**KEPA** -*Bai esa... Hara... Pedro... Zelan zabilta? Ni ongi, hementxe, ez apuratu, jaitsi zait... ez ditut betaurrekoak behar... Ongi, ongi dago... Ez, ez da etxean...*

Beste eskuarekin liburuaren probei eutsi die, eta begiiratu egiten di hitz egiten ari den bitartean. Irribarre bat hazi zaio pixkana-pixkanaka.

**KEPA** -.Aizu, zera... Zu bezalako baten laguntza behar nuke datorren ostegunean... Bai?  
ba bila pasako naiz arratsaldean... Beharbada ex duzu nahi izango... Hobe telefonoz es aipatzea...

KEPAk LURDESek iristerakoan egiten duen zaratz aditzen du.

**KEPA** -.Itxoin... hemen dator... Agurtu nahi duzu? Osteguna arte... eta eskerikasko laguntzarengatik... Pedro da.

LURDESi esan dio azkeneko hori, telefonoa eskuratzen dion bitartean.

Lanpara bat konpontzen hasten da berris. Buru-belarri

saiatzen da lanpararekin, aproba eginez. LURDESek telefonoz hitz egiten du.

**LURDES** -.Ongi... Eta zu? Hori nik ez dakit... Zuk hala badiozu... Besterik ez? Bueno, bueno, agur.

KEPArenganantz doa. Honek ez du bere eginkizuna eteten.

**LURDES** -.Ez, dakit zer baino bakarrago egon behar du... EZ zuen deus nahi, piska bat hitzegin besterik ez... Hain berezia da, ez dirudi hemengoa...

KEPA entxufe bikoitz batekin ari da orain. Lanpararen kablea eta irratiarena sartzen ditu batera. LURDESek solasaldia sortu nahian segitzen du.

**LURDES** -.Tratuan esa nahi dut, emakumeekin alegi...

**KEPA** -.Sensualagoa da, ezta?

LURDESek erantzun honen tonu oldarkorrean, para doxikoki, pozgarria zaion zerbaiten susmoa hartzen du. Horregatik galdetzen du ia-ia itxaropenez:

**LURDES** -.Kepa, orain zelotan?

KEPAk bere estilo kriptiko itxian bilatzen du babesa ezetz esanez buruarekin, segurtasunez.

**KEPA** -.Zeloek maitasunak baino gehiago izorratzen zaituzte... Estuago lotzen dute ...

LURDES hurreratu egiten zaio, jarduna eteneraziz.

LURDES.- Nik esan nahi nuen berarekin joko bat egon litekkela somatzen dela...

Berarengana makurtu da. KEPA ez da eroso sentitzen...

Bere begien adierazpidea gorde arren, aurpegia kendu egiten du, erretiratu. Broma batekin defendatzen du bere burua.

KEPA.- Hemen ez gara sensualak...

LURDES zapuztua dago. Oso serio jartzen da, negarti ia-ia.

LURDES.- Kepa, zuk ez nauzu maite!

Urrats batzuz bereizten da berarengandik. Liburuaren azala begiratzen du mahaitxoaren gainean.

**LURDES.**- Badakit ez nauzula maite, esanak esan... edo idazten dituzunak idatzita ere... <<izebergak ere mugitzen dira>>... eta gezur hoiek denak... Zeure burua besterik ez duzu maite!

**KEPA.**- Baina zer duzu!

LURDESEek tonu mingarrian esaten du:

**LURDES.**- Amodiozko deklarazio bat... zeure buruari! Ez dakit zergatik jarraitzen dugun elkarrekin!

**KEPA** -.*Nik ere ez!... Eta konponketa bat bilatu diot...*

Etenaldia egin eta tonuarekin hitzen gogortasuna gozaten segitzeko erabakia hartzen du.

**KEPA** -.*Aurreneko neurri bezala, hemen instalatu naiz...*

Bertan lo egin duela antzematen zaion sofa zabaldua seinalatzen du. Inprobisatutako gaumahaitxoan iratzargailua eta irrataparatura ditu.

LURDES egongelarantz abiatu da, etsirik.

KEPAk begiratu egiten du eta gero berearekin segitzen du.

## .28AMAGINARREBAREN ETXEA.

Barnealdea, egun argiz.

PEDROren begiradak koadroak eta argazkiak pasatzen ditu. Argazkietan PAULA haurtxo txikia besterik ez da, KORO ama gaztea.

Azkenik, argazki batean PEDRO ageri da, gaztetan, hiru urteko neska koxkorra airean jasotzen.

**AMAGINARREBA** -.*Neroni enkargatzen naiz dana beti bezalaxe eukitzeko...*

PEDROk igarri egiten dio bere argazkiaren markoa paretako hezetasunezko zikinunearekin ez datorrela bat.

Argazkia toki horretan jarri berria dela nabari da.

**PEDRO** -.*Borondate ona... baina begiak lauso...*

AMAGINARREBAk nahiago du aitzakiarik ez jartzea.

**AMAGINARREBA** ... -.*Zerorri izan zīnan aldegin nahi izan zenuna... Inork ez zizun etxe hontatik bota, batzuk hala nahi bazuten ere!...*

AMAGINARREBAk kubierto bat mugitzen du.

PEDROk eskuetan du argazkia. Bere begi erdi itxietan, hunkiduraren antzeko zerbait. Jolasean dabilzan UMEen oihuen gainetik, AMAGINARREBAk aurrera segitzen du bere jardunarekin:

**AMAGINARREBA** -.*Kalte haundiya egin ziguzun denoi. Ez bakarrik haur gaxuari eta Korori...*

Indar handiagoa ematen die bere hitzei:

**AMAGINARREBA** -.Orain daukazu zer edo zer egiteko aukera.

**PEDRO** -.Baina Korok dio...

**AMAGINARREBA** -.Zer ote daki horrek!... Sekulan ez du ezer jakin, txoriburu horrek... Ezta haurdun presentatu zanean ere, ezta etxera ekarri behar izan zizunean, eta zuri gelditu arazteko gauza ere es zan izan...

**PEDRO** -.Agian Paulak ere ez luke nahi...

**AMAGINARREBA** -.Ez diyote uzten!

Leher egin du. Berehala eusten dio bere buruari:

**AMAGINARREBA** ... -.Baina nik ez det politikaren gaiñean hitzegin nahi. Nik nahi detena da gure umea kalera ateratzia eta bere bizitza bizitzia. Zuk ez? Etzazula bigarrenez hondatu!

PEDRO nahastua dago.

**PEDRO** -.Korok ere hala dio...

Bere begirada galtzen uzten du; finkatu egiten du une batean, leihotik zehar, kanpoaldean jolasean ari diren GIZON eta UMEei begira.

Azkenik ere erantzun egiten du:

**PEDRO** -.Ikusiko dut zer egin dezakedan.

MINTZALARIAk diharduen bitartean, << arrainontziaren>> kristalaren atzetik LURDESek triste eta adi begiratzen du.

**MINTZALARIA** >> -.Aingurarik ez loturarrik ez... bazterrik gabeko itsasora buruz...>> Ez al da liburu osoa, Kepa, absolutoaren bilaketa etsitu bat... Maitasun poema luze bat?...

**KEPA** -.Bai... Maitasuna... eta itolarria.

Kristalaren atzetik, LURDESen aurpegian oinazea nabari da KEPAREN erantzunaren ondorioz.

### .30IMPRIMATEGIKO ALMAZENA.

Kanpoaldea eta barnealdea, iluntzean.

Apaletan kokatutako paperez, libururaz eta kartoizko kaxaz betetako almazen handia.

KEPAk peketeak sartzen ditu bere kotxearen atzekaldean ,atzeko atea zabalik duela. Atzetik PEDRO iristen da, hainbat kaxa batera hartuta.

Bafada bat egiten du uzterakoan.

**PEDRO** -.Asko falta dira?

KEPAk ezetz dio buruarekin. Gero erantzun egiten du ahotsa beheratuz:

**KEPA** -.Urduri? Nik bijilatuko dut...

PEDRO pakete gehiago hartzera itzultzen da, atzetik KEPAREN irribarre ironikoa duela.

PEDRO gordetako paketeak dauden tokiraino iristen da.

Disimulos begiratzen du atzera, eta KEPA kotxearen maletagian buru-belarri ari dela ikusirik, azkar-azkar pakete bat zabaltzen du. Harrituta geratzen da barruan liburuak dituela ikustean.

Bat ateratzen du: NAUFRAGIO TXIPIA, Kepa Errasti.

Haserre itzulzen da eta protesta egitera doa, baina KEPA berarengana iritsia da, irribarrez.

**KEPA** -.*Ausarta eta kuskuseroa... Klandestino txarra...*

**PEDRO** -.*Ni bezalako bat behar omen zenuen orduan ..Pendejo bat...*

**KEPA** -.*Ez indartsu bat... Poesia hau pisuduna da...*

**PEDRO** -.*Itsasoratu gabe naufragatzen dutenetakoa haiz hi ere...*

KEPAk debate literario bati dagokion jarrera hartuz defendatzen du bere burua. Ponperiaz dio:

**KEPA** -.*Poetaok ez dugu biografiarik... Poemak ditugu biografia.*

**PEDRO** -.*Ezagutzen dut oihala... fitxarik gabeko xakelariak...*

Liburua gainbegiratzuz segitzen du.

**PEDRO** -.*Eta maitasunean, nola da jokoa?*

KEPAk liburua kentzen dio eskuetatik. Kanporantz dator, kotxeraino.

**KEPA** -.*Ekarri...*

Iribarre egiten du, sortzen ari den tentsioa leundu nahian.

**KEPA** -.*Dedikatu egingo dizut... Funtsean ongi portatu zara... Ridikulo xamar, baina solidario...*

Liburua kotxean bermatu eta idazten hasten da .

PEDROk orain oso herabeti hitz egiten dio bere izaera gogoan hartzen badugu.

**PEDRO** -.*Baina hik Lurdes benetan maite duk ezta? Ez bakarrik bertsotan...*

KEPAk idazteari uzten dio. Serio hitz egiten du.

**KEPA** -.*Gaizki gabiltza, jakin nahi baduzu...*

Berak ere garbi ez duen azalpen baten bila dabilela dirudi:

**KEPA** -.*Aspalditik dator... Gazteegi elkartu ginen, ni behintzat... Separatzen ari gara...*

Liburuaren eskaintzan kontzentratzen da. Bukatu egiten du. Liburua itxi eta PEDROri luzatzen dio.

Gero kotxearen atzeko atea istera doa.

PEDROk ozenki irakurtzen du:

**PEDRO** -.*Osaba Pedro– berriz –!...euskaraz Kepa... To! Ez nintzen ohartu, izen berdina daukagu...*

KEPA kotxe barruan da dagoeneko eta motorra pizten du.

**KEPA** -.*Zurea bikoizketarik ez genuenekoa da...*

*Adin kontua...*

Kotxea martxan jartzen du.



.31AUZABIDEA.

Kanpoaldea, iluntzean.

KEPA txofer doa. PEDRO aldamenean. Guantera gainean liburuaren alea.

**KEPA** -.Aizu... Nik ere uste dut sufritzeari uztea eskubide bat dela, baina gertazen dena da...

PEDROk eten egiten dio:

**PEDRO** -.Ba... lasai, ulertu nuen... <<Duintasun kolektiboa>>, ezta?

Etenaldia egiten du. Berriz ere hizketan hasterakoan lehengo herebetasun berbera ageri zaio.

**PEDRO** -.Eta Lurdeser zer irizten dio?

**KEPA** -.Presoenari? Nik bezala...

**PEDRO** -.Separazioaz diot...

KEPAk bere denbora hartzen du erantzun aurretik. Biratu egiten du bihurgune batean.

**KEPA** -.Ostia! Kontrola!

Halaxe da, UAR-etako bi Land-Rover-ek bidea moztzen diote KEPAREN autoari. Geldierazi egiten dute. OFIZIAL BAT hurreratzen da autora. Era militarrean agurtzen ditu, eta bion dokumentazioa jasotzen du.

**OFIZIALA** -.Salgan y colóquense con las manos en el techo, por favor.

KEPAk eta PEDROk esandakoa egiten dute, PEDROk purrutaka. KEPAk motorra geldierazi du, giltzak klaxonean utziz.

OFIZIALA Land-Roverretarantz doa dokumentuekin, egiaztatzeko asmotan.

UAR 1-ek PEDRO arakatu ondoren, keinu batez kapota zabaltzeko agintzen dio. KEPAk, mugimendu zehatzez, giltzak berreskuratzen ditu.

Atzekalderantz joaten hasten da. PEDROren ahotsa heltezen zaio.

**PEDRO** -.Galdetuko al diot zenbatean daukaten pakean uztea?

KEPAk suminduta begiratzen dio, eta atzekalderantz doa.

UAR 2-k PEDROri agintzen dio:

**UAR 2 ;** -.Usted cállese!

UAR 2-k, kapota zabalik delarik, KEPARI bere lekura itzultzeko agintzen dio, eta liburu paketeekiko interesa erakusten du.

KEPA eta PEDRO aurrez aurre daude, eskuak kotxearen sabaian. PEDROk xuxurlan hitz egiten du:

**PEDRO** -.Méjikon... mila bat pezeta!

OFIZIALA berengana heltzen da dokumentuekin.

**OFIZIALA** -.Sr. Sansinenea... Nacido en España y mexicano¿ ...Piensa quedarse mucho tiempo aqui?  
**PEDRO**¿ -.Y usted, agente?

KEPAren haserrea areagotu egiten da. UAR 2 bere OFIZIALAren ganaino iritsi da KEPAren iburu batekin. UAR 1-ek guanteratik hartu duena du eskuan. OFIZIALAk gainbegiratu eta elkarren artean alderatzen ditu. KEPAren gana doa, bion dokumentazioa itzultzeko.

**OFIZIALA**¿ -.Es suyo, verdad?  
**KEPA** -.Sí ,son poemas... poesía...

OFIZIALAk boligrafoa ateratzen du poltsikotik.

**OFIZIALA** -.Bueno, pues si es tan amable... me lo dedica a mí también...

Liburuetako bat luzatzen dio KEPAri. Honek, pixka bat harriturik, autoaren kapotaren gainean makurtu, boligrafoa eskuan duela, eta liburua zabaltzen du.

**OFIZIALA** -.Ponga para Patxi, por favor...

KEPA idazten hasten da zalantzako une llabur baten ondoren, eta PEDROk, eskena honen lekuko, kotxea kulunkarazten du bere eskuekin. KEPAk eten egiten du une batez bere zeregina PEDROri begiratzeko. PEDROk sumindurik begiratzen dio.

KEPAk OFIZIALAren gana jiratu eta liburua eta boli

OFIZIALAk dokumentazioa itzultzen dio eta PEDROren liburua, ondoren berea zabalduz:

**OFIZIALA** -.Ah... me lo ha puesto usted en euskara... No se preocupe, me lo traduciré el profesor...  
*tenemos clase todas las semanas ...Eskerrik asko!*

KEPA eta PEDRO kotxean sartzen dira.  
Kotxea martxan jartzen da.

.32ITSASERTZA

Kanpoaldea, iluntzean.

Kotxea aldapan azaltzen da eta frenatu egiten du zabalgunetik txiki batean, olatuen aurrean kokatutako labar baten ondoan. KEPA jaisten da lehenengo eta labarraren ertzera doa besoak astinduz, lasaitu nahian bezala. PEDRO datorkio atzetik, tonu ironikoan komentatuz:

**PEDRO** -.Bai, bai, lasai handi... A ze aurpegia zenuen...

KEPAren aurpegiera imitatzen du. KEPAk amorru bizian ihardesten dio:

**KEPA** -.Zergatik egon zara hain harro?

PEDROk zalantza erakusten du une batez. LASai eta pozik ikusten da.

**PEDRO** -.Ez dakit, agian << duintasun indibiduala>>... Eta hi, zergatik egon haiz hain morroi?

**KEPA** -.Badaude aurre egiteko metodo hobeak!

**PEDRO** -.Poema izugarri gogorak idatziz?... Eta gero berairi dedikatuz?

Labarrerantz doa. Itsasautsira begiratzeko du han behean.

Bere baitan apur bat barnebildurik hitz egiten du:

**PEDRO** -.Guk, hire adinean...

**KEPA** -.Hori orain dela urte para bat ezta?

PEDROk ez du aintzakotzat hartzen mutirikeria.

**PEDRO** -.Latzago jokatzen genuen... olatuei eutsi arrokei helduta... hostia listuan botatzea komulgatu ondoren... eskerretik gidatu...

**KEPA** -.Hori modan dago ostera... señorito suiziden artean...

PEDRO ia-ia nostalgiko dago.

**PEDRO** -.Pepe horrelaxe hil zen... beti pentsatu izan genuen suizidioa izan zela... emaztea ere suizidatu egin omen zen...

**KEPA** -.Ez zaidak interesatzen! Hemen aukera gehiegi daude hiltzeko... Eta zer edo zerengatik!

**PEDRO** -.heriotzea zerbait positibo eta kolektibo bezala... Baina hil artean, barea baino zapalduagoak bizi zarete...

KEPAk amorrutik errakzionatzen du:

**KEPA** -.Eta hi? Hi ez hago zapaldua ezta? Begira zer egin duten hitaz: supergizon izan uste duk kontrol batean harrozkorena egiteagatik...

PEDRO pentsador dago une batez, hausnarrean.

**PEDRO** -.Beharbada arrazoiak duk... Dena dela, Kepa, a ze humillazioa!

**KEPA** -.Baliteke...

**PEDRO** -.Egia ote da orain euskara iksten dutela?

**KEPA** -.Bueno.. Espero dezagun ezetz!

PEDROk KEPAri begiratzeko dio harrirituta. Honek irribarre egin eta esaldia amaitzen du:

**KEPA** -.Edo bestela, espero dezagun nire letra ez ulertzea...

Irribarrez segitzen du. PEDROk begiratu egiten dio eta irribarre egiten du berak ere. Ulertzen hasten da.

**PEDRO** -.Orduan?...

Ia-ia barrez hasten da. KEPA ere bai. Baiezko keinua egiten du buruarekin. Bion barrea handituz doa, harik eta erabateko algara bihurtzen den arte. PEDROk barre artean egiten du hitz:

**PEDRO** -.Pedro Kepa, Kepa Pedro, txingadera berdina!...

Bi irudi ñimiño harkaitzaren gorenean, harrien, hodeien eta uraren grisaren gainean.

.33UNTZIOLA.

Kanpoaldea, egun argiz.

XABIER, PEDROren antzeko tipo bat, baina honek dituen elementu exotikorik gabekoa, hatzekin sudurrari heltzen ari da, arnasari eutsiz. Aurpegia itokarrean du.

Eskuturreko kronometroa begiratzen du, ahora itxita mantenduz. Bere aurrean PEDRO dago, arnasari eusten hau ere, era berean.

Eraikuntza prozesuan dagoen untzi baten manduko kabinan daude. Segunduak pasatzen dira. XABIER lehertzen da lehenengo.

**XABIER** -.Uff...! Heu irabazle, beti bezala... Bueno, goazen harira...

PEDRO LANGILEei begira dago, soldagailuen txinparten eta garraldien artean ikusten diren aurpegi izerdituak.

**PEDRO** -.Eta deia?

**XABIER** -.Lasai gizona, Arrutik konponduko du hori... Ez da samurra harrapatzea... Nik zuzenekoa daukat baina.

XABIER eta PEDRO telefonorantz doaz.

**XABIER** -.Arruti? Xabier... Minutu bat koño ,oraingoa fantasma bat pasatzeko da...

Aparatua PEDROri ematen dio. Honek txistua jotzen du era jakin batean.

**PEDRO** -.Bai gizona, Pedro... Gogoratzen haiz gainera... Biziriak negok bai, bizirik eta Donostia... Ba ikusi egin nahi haut... Noski beste hogeit hamar urte baino lehen ez legoke gaizki... Asteazkenean zortzi, kasualidadea duk bai. Bale... ze ordutan?... Bai, noski, meza... Gero zigarroa erdi bana komuneta... Okei...

XABIER baiezko keinuak egiten aritu da bitartean. Une batean sudurra estutu berriro hatzekin eta kronometroari begira hasi da.

itolarrituz joan da PEDROk telefonotik hitz egiten zuen bitartean. Lehertu egiten da berriz, PEDROk komunikazioa eten eta pixka bat geroxeago. Oldakor dio:

**XABIER** -.Izorratuta nago... Eta hik etorri behar konturatzeko... Klaro, hik b eto bizimodu hobea eraman duk... Libreago, kompromisiruk gabe... Suerte izan duk egia esan!

Bere hitzek PEDRO haserrerazi egiten dute. Begirada untzian zehar barreiatu ondoren:

**PEDRO** -.Eta hiri nola doakik? Familiarik baduk?

XABIERren erantzunak amorrua adierazten du zorion bete baino areago. Ez du alde batera uzten bere tonu oldarkorra.

**XABIER** -.Apenas! Sei, sei zeuzkat! Hori bai dela borroka eder bat, guztiei jaten ematea, eta ez odolzale banda horrena.

PEDROk gogor begiratzen dio.

Gero ahalegin handia egiten du XABIERren ikusminaren aurrean hizketan hasteko.

**PEDRO** -.Mila esker deiagatik...

XABIERrek pozez onartzen du garaipena, baina oraindik ere tonu garratza mantetzen du.

**XABIER** -.Zer gutxiago! Gainera, diozunez zure alaba benetan konpondu nahi dutenetakoa baldin bada...  
GOazen, txabola honen zokoak erakutsiko dizkiat.

PEDROk ezetz dio buruarekin. Tristatu egin da. Zintasun osoz egiten du hitz:

**PEDRO** -.Ez, es, negok ondo...

**XABIER** -.konprenitzekoa da... Niri ere halako seme bat atera ezker...

PEDRO gehiago ezinean dago. Baina tonu behere eta mingotsean zera dio bakarrik:

**PEDRO** -.Ez da alabarengatik...

Tinko begiratzen dio XABIERri. Tonua aldatzea lortzen du. Segundu batzutan sudurra estutzen du hatzekin.

**PEDRO** -.Entrena hadi asteazkenerako... Agoantatzen ikastea besterik ez duk...

## .34LONJA INDUSTRIALA.

Barnealdea eta kanpoaldea, iluntzean.

Jai giroko musika alaia da nagusi lonja zabalean karrozak prestatzen ari diren neska-mutil GATEen harat-honatean. BESTE BATZU, urrunago, apaingarriak ezartzen ari dira, festari berari buruzkoak, euskaltegi berri baten aldekoa. MUTIL batek, blai egindako gabardina bat jantzita, estu eta azkar iragaten du atearen eta taulatuaren arteko tartea, berarekin gurutzatzen diren TALDEei zerbait esanez. MUTILAK esandakoa entzun ahala beren lanak utzi egiten dituzte.

Bat batean musika eteten da .Megafoniak sortutako txistu-hotsak entzuten dira musikaren ordez lehenengo, eta gero gizon baten ahots hunkitua, zurrunbilo guztiaren zaratak eta mailukaden soinua doi-doi gainditzen dituen.

**MUTILA** -.Hi, Asier! Entzun al duzue irratia?

MUTIL heldu berria da kolpeka hitz egiten ari dena.

**MUTIL 2** -.Ez, ze ba?

**MUTIL 3** -.Hi, Karlos. Ba huen garaia.

**MUTILA** -.Enfrentamendu bat izan da...

Albisteak KEPA kolpatu egiten du; egiten ari zen lana utzi eta taulatu aldera jiratzen da.

**MUTIL 2** -.Kaguen sos. Non izan duk?

**MUTILA** -.Donostian.

**MUTIL 4 (OFF)** -. (Hildakorik bai?

**NESKA** -.Ihes egin ditek?

**MUTILA** -.Hiruu hildako zeudek. Ez ditek besterik esan.

**MUTIL 5 (OFF)** -. (Zeozar egin beharko da.

Lehenengo galderak sortzen dira nahas-mahasean. MUTILA galdera horiek erantzuten ahalegintzen da.

**GAZTEAK** -.Ezagutzen al da hildakoria? Non izan da?

**MUTILA** -.Ez dakigu izenik... Donostia izan da...

Bere hitzak aditzen dira hurreratzen jan diren GAZTEen aurpegi tentsoen gainean.

Aurpegi larriturik duela, KEPA taldetik urrundu egiten da pixkana-pixkanaka. Malkoak hasten dira agertzen bere begietan.

Bat batean sortu den asanblandako esaldiak entzuten diren bitartean, irteerantz abiatzen da.

**GAZTEAK (OFF** -.*(Zer edo zer egin behar da...*

KEPA lonjako sarreran zabalik dagoen ateraino iritsi da.

Handik irten eta kanpoaldean gelditzen da, euripean.

Aurpegieran geratzen da, ezertarako ezgauza, negarrez, euri mardulak bustia.

.35LONJA INDUSTRIALAREN AURREKALDEA.

Kanpoaldea, iluntzean.

KEPA bere autoaren bolante ondoan eserita dago.

Ilea eta aurpegi bustia doi-doi ikusten zaizkio, kristalaren gainetik herrestatzen de uraren azpitik.

Iratia entzuten ari da. Ez ditu xehetasun berri asko ematen, nahasketa handia dagoela dirudi. Tokia inguratua eta itxia omen dago.

MUTILAK eta beste bi GAZTEk korrika zeharkatzen dute kalea. Lonjatik irten dira.

Norabidea aldatu egiten dute KEPAREN kotxea ikustean.

Kotxearen pareraino iristen dira. MUTILA sartu eta KEPAREN ondoan esertzen da, BESTEek, euripean deseroso sentituz, atzeko atea jotzen dituzten bitartean, ateen seguruak kentzen dituzte. Bi GAZTEAK bustita eta tututa sartzen dira.

**GAZTE 1** -.*Tira, arranka ezak!*

KEPAk ez du mugimendurik batera egiten. MUTILAK begiratu egiten dio, malkoz betetako aurpegia erreparatuz.

**MUTILA** -.*Ba al dakik nor diren?*

KEPA buruarekin ezezka ari da hasieratik. Gero hautsitako ahotsez egiten du hitz:

**KEPA** -.*Horrek ez du ezer aldatzen.*

Atzekoak beran testen ari dira.

**GAZTE 2** -.*Arranka ezak agudo!*

**MUTILA** -.*Askar, Bulebarrera!*

.36BULEBARRA

Kanpoaldea, gauez

Poliziako MOTORISTAK ageri dira abiadura bizian, euriak dirdirarazten duen galtzadaren gainean.

Urrunean detonazioak aditzen dira.

Alde Zaharretik oihuek, lasterka saioek eta gomazko piloten tiroek sortutako zurrumurru ilunak datoz.

GAZTE taldeak, korrika, Alde Zaharrerantz bultzatzen dituzte ateztik datozkien motorrek.

Euriak bustitako diskotekako leihoetatik zehar dena lausoturik ikusten da.

### .37DISKOTEKA.

Barnealdea, gauez.

PEDRO leihotik zehar begira ageri da.

Leihu ondotik aldendu egiten da. Nahikoa edanda dago. Pista erdira iristen da. GAZTE talde handi bat dago han dantza eroan.

haien erdian sartzen da. Begira geratzen zaie. Aldi berean berari begira geratzen zaizkio haietako zenbait.

Bere kasa dantzan hasten da PEDRO, bakarrik.

### .38KEPA ETA LURDESEN ETXEA

Barnealdea, gauez

LURDES bere gelako ohean dago, gaumahaiko lanpararen argitan irakurtzen. Ohe buruan irrati txikia dago, eta hainbta liburu.

Ateare zerrail hotsak irakurketa etenerazten dio. Libura behera jaitsi eta aterantz begiratzen du. KEPA azaltzen da atetik. LURDES agurtu eta galdu egiten da.

Berriz azaltzen da, burua lehortzen. LURDESen ondoan esertzen da.

**KEPA** -.*Jakin duzu?*

LURDESek segundu batzu itxaroten ditu erantzun aurretik.

**LURDES** -.*Bai...*

**KEPA** -.*Izugarrria da!*

LURDESek ixiltasunez erakusten du KEPAREN oinazearekiko begirunea.

**KEPA** -.*Horiek itsasoratu dira... aingurarik gabe...*

LURDES solasaldia arlo pertsonalago beterantz eramaten saiatzen da.

**LURDES** -.*Kepa...*

Baina KEPAk bere deitorean segitzen du:

**KEPA** -.*Kurpil hau ezin du inork geldierazi!... Eta okerrena da ulertu egiten dudala...!*

KEPA eta LURDES lur jota geratzen dira une batez.

LURDESek liburuari eusten dio, indar handirik gabe;

KEPAk eskuoihala du sorbalda gainean.

Gero KEPA bere barnebiltzetik esnatu egiten dela dirudi, eta irratia hartzen du.

**KEPA** -.*Utziko didazi? Komunikatuak aterako dituzte...*

LURDESek arrenkuratzen hasteko keinua egiten du. Gero etsi egiten du.

KEPA gelatik irteten da irratia hartuta. LURDES, etsiturik, puntu finko batera begira geratzen da, liburua bertan behera utziz.

KEPAk sofa-oheta zabaltzean egiten dituen zaratak iristen dira.

### .39NIZA HOTELEKO GELA

Barnealdea, gauez

Bustita eta erdi erantzia, PEDROk oihu egiten du telefonoan.

**PEDRO** -.*Síj ...Blanca ...!Ah... Ez dutela eratzuten? Zer ordu eta ze arraio! Orain arratsalde erdia da han!...*

Telefonoa eseki eta arropak erazten segitzen du keinu bortitzetan, ispilu aurrean. Alkondara eta galtzak erantzi ondoren bere burua begiratzeko du.

Galtzontziloak eta galtzerdiak bakarrik jantzita, bere tripazorro irtena nabarmentzen da. Destainaz begiratzeko du tripazorroa. baita betazpi sakonak ere.

Kolpe handi bat jotzen du, beira hautsiz.

Odola dario eskutik. Odolari begira geratzen da.

### 40 OSPITALEA.

Barnealdea, egun argiz.

Odola herrestatzen da konketan zehar, urak eramana.

Isurbidetik behera galtzen da.

LURDESek ontzia hustu egiten du. Jiratu egiten da. Sakon begiratzeko dio sendatu berria duten ZAURITUARI.

Mutil gaztea da. Zurbil dago, begiak MEDIKUAren tinko, larritasuna adierazten duen begirada batez. MEDIKUA, berriz, serio.

ERIZAINAK sartzen dira ohatilarekin, eta bi GOARDIA. ZAURITUARI eskuburdinekin lotzen dizkiote eskuak.

Berarekin irteten dira GOARDIAK, LURDES, beren atzetik.

Korridorean mugimendu handia dago, beste ZAURITU BATZU, POLIZIAK, FAMILIARRAK...

LURDESek tinko begiratzeko dio zauriturik dagoen POLIZIA bati ere. Begirada arropa blai egiten duen onodolean gelditzen da.

### .41OSPITALEA

Barnealdea, egun argiz.

ERIZAINAK arropa aldatzen ari dira, lan eguna amaitu ondoren.

Nekatuak daude, ahituak, urduri gainera gaur poliziek eta burrukalariak sortu duten harat-honat etengabea dela eta.

**INES** -.*Noiz arte ikusi behar dugu jendea armekin pasiloetan eta geletan!...*

**NEKANE** -.*Komunikatu bat egin behar genuke...*

**ITZIAR** -.*Ni nazkatua nago hainbeste biolentziaz... Munduan nahiko sifrimetua es balego bezala...*

Bi ERIZAINEK alde egiten dute eztabaida hasi bezain laster. LURDESek dena entzuten du ezpinak mugitugabe. Bere aurpegiera ez da aldatu zaurituak eta beren odola ikusi dituenetik.

**NEKANE** -.*aldegin dezatel eta akabo biolentzia!*

**ITZIAR** -.*Ez da hain erra... Gainera, niretzat es dago hori baino okerragorik, heriotzea...*

**INES** -.*Orain es gara horretas ari! Arazoa da persona armatuak onartzen diren hemen...*

*Nekane zai gelditu behar duzu? Bidea moztu baino lehen ailegatu nahi nuke...*

**NEKANE** -.*Ez oraindik ez.*



INES irten egiten da, LURDES atzetik duela.

#### .42OSPITALEAREN AURREKALDEA.

Kanpoaldea, egun argiz.

Anbulantziek eta polizi kotxeek batetik bestera segitzen dute, etengabe.  
INES eta LURDES aparkalekura iristen dira.

**INES** -.Ondozik al zaude? Ez duzu hitzik atera...

**LURDES** -.Egunak izaten dira...

Klaxon baten zaratak eteten dio esaldia.  
Taxi bat dago beren ondoan. Leihatilatik PEDRO azaltzen da.

**PEDRO** -.Lurdes! bazatoz?

Atea zabaltzen du. Eskuan lore sorta handia du.  
LURDES nahastua dago. Lotsatu egiten da INESen aurrean. Honek aurpegiera ironikoz begiratzen dio.

**INES** -.Bueno, bueno... zoazte, pareja...

Bere kotxean sartzen da LURDESek ezer egin ahal izan baino lehen.  
LURDESek txunditurik begiratzen dio PEDROri eta batez ere, lore sorta eskergari.

**PEDRO** -.Hau? Ez da uste duzuna...

PEDROk loreak astintzen dituenean, eskua bendatua daramala ikusten du LURDESek.

**PEDRO** -.Eta hau ere ez... Oraintxe esplikatuko dizut... Ez zatoz?

Kotxetik jaitsi egiten da, LURDES bertara igo ahal izan dadin.

#### .43HILERRIA.

Kanpoaldea, iluntzean.

PEDRO eta LURDES hilobi artean dabilta, jakineko baten bila.  
LURDES oraindik ere ezusteak harrিতua duela dirudi.  
PEDROri begiratzen dio ulertu nahian bezala.  
Panteoi familiar txiki baten aurrean gelditu dira.

**PEDRO(OFF** -.*(Ez nuen hiltzen ikusi, aita ere ez...*

**LURDES(OFF** -.*(Eta hala eres ez zinen bueltatu?*

**PEDRO(OFF** -.*(Aita hil zenean ni hemen nitzen oraindik, baina derrepente hil zen... Amarena gertatu zenean aldegin berria nintzen...*

PEDROk hilerriko izenak egiaztatzen ditu. Hutsune bat seinalatzen du zerrendaren amaieran.

**PEDRO** -.Begira, nire lekua...

LURDE Sengana jirutzen da. Maitekiro hitz egiten du:

**PEDRO** -.Eskerrik asko laguntzeagatik. Badakit arraroa dela, baina atsegin zitzaidan zer edo zer intimoa zurekin komentatzea...

**LURDES** -.Pedro, zergatik itzuli zara?

PEDROk tinko mantetzen du begirada:

**PEDRO** -.Ez dakit... Beharbada sustraiak eta hori guztia...

Bere begirada are sakonagoa egiten da, indartsuagoa.

**PEDRO** -.Edo premonizio bat...

LURDES aldendu egiten da pixka bat, urrats batzu eginez, bion arteko gehiegizko hunkigarritasunetik ihesi.

**PEDRO** -.Barka, bukatua, kanbio... Zerbait hartuko bagenu?

**LURDES** -.Nahiago dut etxera joan... oso nekatua nago... gaur ez da egun normala izan...

LURDESek hizketan segitu zain geratzen da PEDRO, baina ez du hitzik egiten. Irteerarantz ibiltzen hasten da. PEDRO atzetik darraikio:

**PEDRO** -.Polita izango litzateke nik ere zeure gauzaren bat jakitea... Zer gertatu da?

LURDES zalantzatan geratzen da, baina, bat batean, lehertu egiten da zentzugabea dirudien esaldi batekin:

**LURDES** -.Berdin dutela odola!

**PEDRO** -.Zer esan nahi duzu?

**LURDES** -.Poliziek eta geureek... odola berdin... eta sufrimentua... Eta hala ere, ezin ditut berdin ikusi... izugarria da sentitzen hasi naizena...

Lotsatuta dago. PEDRO, berriz, pozik nabari da LURDE Sengandik hain gertu egotea lortu duelako. LURDESek hizketan segitu zain geratzen da, behartu gabe.

**LURDES** -.Gorroto dut gorrotoa... beldur diot beldurrari... Gustatzen al zaizkizu Keparen poemak?

PEDROk gezurra esaten du berriz ere:

**PEDRO** -.Ez dut batere irakurri...

Beren artean KEPA aipatzeak zer suposatzen duen ohartzen da. Gaiari aurre egiten ausartzen da, leunki:

**PEDRO** -.Eta zuek, zer moduz zabiltzate?

**LURDES** -.Gaizki... gaizki... eta horrek ere influitzen du... Lehen gauza hauek berarekin komentatzen nituen... barkatu etxera noa... ez da samurra izango iristea...

Egoera hautzi egin da. PEDROk azken ahalegin bat egiten du hala ere egoera salbatzeko. Inguruetara begiratzen du, lagungarri izan lekiokkeen zerbaiten bila. Lur emate baten zeremoniak amaitu berri dituen TALDE batean erreparatzen du. AHAIDEAK dolua despeditzen ari dira.

PEDRO bere lehengo seduzitzaile bitxiaren tonura itzultzen da:

**PEDRO** *-.Beti egin nahi izan dudan gauzetako bat!... Inondik ere ezagutzen es nuen pertsona batengatik doluminak hartzea...*

LURDESek begiratu egiten dio berriz ere, ulertu gabe.

**PEDRO** *-.Nire teoria da hildakoa zeure aita balitz bezain lur jota uzten zaituela... Martibullo baten antzekoa da...*

LURDES besarkatzen hasten da pixkana-pixkanaka, hitz egiteari utzi gabe.

**PEDRO** >> *-.Zaindu ama, Pedrito>>...<<Aita zerutik begira daukazu>>... Bistaz ere ezagutzen ez nituen pertsonak...*

Elkarrengandik oso gertu dituzte jada aurpegiak. LURDES estu dago, tentsioan. Begietara begiratzen diote elkarri. PEDROk esku bendatua LURDESen aurpegiraino igotzen du. Honek hartu egiten dio. Aitzakia bakarra aurkitzen du egoera hau hausteko.

**LURDES** *-.Zer egin duzu eskuan?*

PEDRO berehala jabetzen da ez diola gehiago ekin behar. Bere tonu lasai eta alaira itzultzen da:

**PEDRO** *-.Lotsagarria... Agure bati eman nion...*

.44KEPAREN ETXEA.

Barnealdea, gauez.

Teleaparatura puntu argitsua da gela ilunean. LURDES sofán eseria dago.

Begirada tristea du KEPAREN ohe berriaren ondoan dagoen gaumahari inprobisatuarentzat. KEPAREN egunero kontasun berriaren lekuko ere baden neurrian.

Sarrerako atetik hots bat datorrela aditzen da.

KEPA sartzen da etxean, txamarra erantziz. Sarrerako gakoan esekitzen du.

LURDESek argia eta teleaparatura itzali eta atea isten du bere atzean KEPAREnganantz irtetean.

Honek barmena eskatzen du:

**KEPA** *-.Asanblada izan dugu euskaltegian...*

LURDESek tristuraz begiratzen dio.

**LURDES** ... *-.eta gero ez dizut hotsegin lo egongo zinelakoan...*

Egongelarantz doa artean ere itxaropen apur bat gordetzen zuen LURDESen begirada tristea atzetik duela.

Egongelan, KEPA telea piztu, sofán eseri eta zapatak erazten hasten da.

LURDES bere atzetik etorri da.

**KEPA** *-.Zuek, ze, gelditu behar al duzue?*

LURDESen tonua mindua da:

**LURDES** -.Kepa, zure zain egon naiz... kezkatua nengoen...

**KEPA** -.Ez duzu zergatik... Poliziarik inozoenak era badaki inofensiboa naizela...

KEPAren sofa tonuaren aurrean LURDESek leher egiten du.

**LURDES** -.Zeure buruan besterik ez duzu pentsatzen!

KEPA sofa zabaltzen hasten da. LURDESek ezin du jasan. Gelatik alde egiten du. Are gorago, KEPAk, tonu egizalea erabilir lehenengo aldiz, zera esaten dio:

**KEPA** -.Lurdes, ezin dugu horrela jarraitu...

LURDES gelditu egin da korridorean, itxaropen apur bat sentierazten dion esaldia entzun duenean. KEPAk ordea suntsitu egiten du itxaropen apur hori hurrengo esaldiarekin:

**KEPA** -.Hobe dugu erabatekoa egin...

LURDES negarrez sartzen da logelan. Bere burua ez-kontohe zabalaren gainean erortzen uzten du. Negarrak sorbaldak eta bizkarra astintzen dizkio.

.45KEPA ETA LURDESEN ETXEA.

Barnealdea, egun argiz.

LURDES mahai aurrean eseria dago, egongelan. Axolagabe jantzia, nola edo hal, prestatu gabe. Barnebildurik, ez du mokaurik ere ahoratzen bere aurrean duen gisatu pateratik.

KEPA iristen da kaletik. Egunkaria dakar besapean.

**KEPA** -.Kaixo...

Ez du erantzunik jasotzen. LURDESek bere baitan barnebildurik segitzen du, eta ez dio kasurik egiten KEPAk mahai gainean uzten dion egukariari ere.

**KEPA** -.Jendeak greba egiteko gogoa zeukan...

Ogi puska bat hartu eta platerean busti egiten du.

Probatu egiten du.

**KEPA** -.Buuf... nahi duzu berotzea?

**LURDES** -.Ez... es dut nahi, es dut ezer nahi.

KEPAk une bateko zalantza du egunkaria hartu eta sofarantz abiatu aurretik. Irratia pizten du.

**KEPA** -.Orain esango dute erantzuna eskasa izan dela eta koakzioz...

**LURDES** -.Pedrok hotsegin du.

KEPAk, zabaldu berria duen egunkaritik begiak jaso gabe erantzuten dio:

**KEPA** -.Zer du, tabernen greba ezin agoantatu?

**LURDES** -.Joateko erreskatatzera, horixe esan du.

KEPAk irakurketa alde batera uzten du. Proposamena egiten du:

**KEPA** -.*Eta etxera ekarriko banu? Zer edo zer izango dugu edateko...*

LURDESek jaikitzen ikusten du. Onartu egiten du proposamen ezer esan gabe.

**LURDES** -.*Biltzak hori behintzat!*

Gainean eta inguruan almohada, burusia eta gaumahaia dituen sofari burruz ari da.

**KEPA** -.*Ze... ez duzu nahi nabaritzea?*

Ia-ia oihuka:

**LURDES** -.*Kepa!*

KEPA bere etzauntza konpotzen hasten da.

**KEPA** -.*Barkatu... Sufritzeko modu bat... Nerea hala da...*

#### .46INGURUNE INDUSTRIALA.

Kanpoaldea, iluntzean.

KEPA eta PEDRO, LURDESen autoan doaz Donostia eta Pasaia arteko ingurune industrialean zehar.

Itxitako tabernak eta lantegiak daude, greba orokorrako deia egiten duten pankartak, GIZON eta EMAKUME taldeak, harrigarri gertatzen direnak ordu hauetan.

**PEDRO (OFF ...** -.*(eskerriak asko erreskatatzera etortzeagatik... Ez dakit zer egin behar den borroka egun batean...*

**KEPA (OFF** -.*(Ba horize, borrokan... Gitxienes greba egin...*

**PEDRO (OFF** -.*(Greba... nik? Orain bertan jaiki naiz eta... Greba orokorra, urteetako ametsa... Politika ez zait batere interesatzen!*

**KEPA (OFF** -.*(Ezta niri ere.*

**PEDRO** -.*Baina hi abertzelea haiz ezta?*

**KEPA** -.*Nik izan nahi nukeena da eskubide osoko herritarra...! Hainbeste onazerik gabe...*

*Baina badakit ezinezkoa dela...*

**PEDRO** -.*Interesatzen zaizu politika beraz...*

**KEPA** -.*Politika da ni bakean uzten ez nauena...*

*Etxean sartzen zaizu, bizitzan, denean...*

Bide erdian zeharka ezarritako kamioi batek galerazten die ibilgailuei aurrera segitzea. Zenbait aurrera irten nahian dabil espaloi gainera igota, baina trabatuta geratzen dira, pasatu ezinik. Sirenotsak entzuten dira urrunean.

GAZTE talde batekoek, aurpegiak estalita, ospa egiten dute zuhurki.

Zenbait bolante kolpe bortitzen bidez, KEPAk aurrera jotzea lortzen du, barrikada bortxatu gabe eta liskarraren erdigunera iritsi beharrik gabe. Bide bat aurkitzen du kale artean. Berriro ere errepide nagusira irteten du.

Ertzantza trafikoa arintzen saiatzen da, seinaleztapen isladatzeilea erabiliz horretarako.

**PEDRO** -.*Beste Polizia bat!... Ez duzu denei eskaintzeko haina libururik...*

KEPAk irribarre xumea egiten du txistearen kontura. Poliki darama kotxea.

**PEDRO** -.Nora goaz?

**KEPA** -.Etxera... bueno, Lurdesen etxera...

Bere tonua bortxatua eta urduria da, disimultzen saiatzen bada ere.

.47KEPA ETA LURDESEN ETXEA.

Barnealdea, iluntzean.

LURDESek negar egin duela erakusten dituen markak ditu aurpegian.

Sukaldetik egongelara mugitzen da, era horretan PEDROk astiro begiratzeko aukerarik izan ez dezan. KEPAk izotz puskak atera ditu hozkailutik, katilu batean jartzen ditu eta whisky batzu zerbitzatzen hasten da.

PEDROk bion harat-honatak ikusten ditu, eta begiradarekin haltzariak, trasteak eta liburuak pasatzen hasten da. Inprobisatutako gaumahaian erreparatzen du.

Beste biak nola dauden, nola sentitzen diren, jakiten ahalegintzen da: artega eta ixil mugitzen segitzen dute. Sofan esertzen da.

**PEDRO** -.Gezurra badirudi ere, kintolagunak baino hurbilagokoak zarete niretzat... Zenbat haur! Eta zenbat koinatu!... Familiak baino, multitudeak ematen dute...

Mingostasuna antzematen zaio bere tonuari txantxetan bezala hitz egiten saiatu arren.

KEPAk edalontzi bat whisky ematen dio. Berak beste bat du.

**KEPA** -.Birekin ere multitude bat daukagu...

Whiskya edaten du. LURDES azaltzen da, errieta eginez:

**LURDES** -.Egin ezazu txoroarena eta gero agoantatuko zaitugu...

**KEPA** -.Bai... Babes nazazu...

Bion arteko tentzioa handiegia da eztbaidak duen tonu arruntarentzat.

PEDROk biei begiratzeko txandaka, halako tristura apur batez.

**PEDRO** -.Uste dut hemen ere sobran nagoela...

KEPAk whisky gehiago zerbitzatzen dio eta beste bat prestatzen du berarentzat ere.

**KEPA** -.Denok gaude sobran... Nik ez dut neure burua ere agoantatzen....

Tragu batean hustutzen du edalontzi bete berria.

PEDRO hondoratzen ari da. Tartean sartzen saiatzen da, bake bila:

**PEDRO** -.Tira Kepa, ez ezakela izorratu...

KEPAk beste whisky bat prestatzen du berarentzat, eta beste bat gero LURDESentzat.

**KEPA** -.Aukera paregabea da despedidako topa bat egiteko... Zeu izan zintezke lekuko...

Edalontzia atxaltzen du:

**KEPA** -.Familia indibidualagatik... Edo nahiago baduk, itolarriagatik!

PEDRO nazkatua dago. Edalontziek topa egite galerazten du. Gogortasunez mintzo da, gogaiturik, nekaturik.

**PEDRO** -.Ni ez naiz ezeren lekuko...

**KEPA** -.Lekuko izen nahi es baduk, aholkulari izan haiteke, hainbeste dakianez... Nola aldegindo nuke, oinez ala igeri?

LURDESen hitzak bat bateko zartada ikaragarria dira:

**LURDES** -.Ezin, ez dakizu igeri!

**KEPA** -.Eta hik zer ote dakin nik dakidanaz edo ez dakidanaz!

**LURDES** -.Ez dakianaz, asko.

Elkarren aurka daude erabat, biolentziaren mugetan.

PEDROk, trastaturik, parte hartzen du berriz.

**PEDRO** -.Lurdes, eska ieza dazu taxi bat.

**KEPA** -.Ez da posible... Greba... Ez diat esan?

*Belfasten jubilatzeagatik gertazen zaik...*

Aipamen honek PEDRO amorrarazten du. Tonua goratu egiten du:

**PEDRO** -.begira Kepa! Jubilatua eta guzti, jata mutturra hautsi!...

**LURDES** -.Nik eramango zaitut, Pedro.

KEPAk bere oneritzia erakusten du, eta agerian utzi nahi du, nabarmen. Poltsikoan kotxearen giltzak bilatzen ditu.

LURDESi botatzen dizkio keinu zakar batekin.

**KEPA** -.Hartzan... Azken lotura...!

.48LURDESEN KOTXEA

INGURUNE INDUSTRIALEAN ZEHAR

Kanpoaldea, gauez.

Ilundu egin du.

LURDESek txofer egiten du, ixil-ixilik luzaz, bere baitan barnebildurik.

Bere ondoan PEDRO dago, artega, zer egin edo zer esan ez dakielarik.

Malkoak azaltzen dira pixkana, pixkanaka LURDESen masailetan .

Begirada aurrera begira behartzen saiatzen da.

Kotxea geldituz doa. LURDESen begiak malkotan blai daude.

**LURDES** -.Ezin dut...

Burua bolantearen kontra bermatuz, negar egiten du, eutsi gabe, lasai, astinaldi bortitzetan.

Urrun samar, barrikada baten azken kondarrak ageri dira sutan.

Anbulantzia baten sirenotsa entzuten da eta, tarteka ,piloota tiro bakarren bat edo beste.

Zalantzakor, PEDROK esku bat ezartzen du LURDESen buru gainean.  
Honek ez du erreakzionatzen

**LURDES** -.*Ezin dut, ezin dut...*

Anbulantzia baten argi dirdirak zaflutzen dio aurpegia.  
PEDROK adatsa laztantzen dio, keinu ambiguo batean.

**LURDES** -.*Gorrotatu egiten nau...*

Aurpegia malkotan duela, PEDROrenganantz jiratzen da. Burua PEDROren esku ahurrean hondoratzen du negar eginez, astinaldi bortitzetan.

**LURDES** -.*Ez dut gehiago maitatuko... Eta izugarria da, maite dut eta!*

PEDROK ez daki zer egin. Ixi -ixilik geratzen zaio begira, LURDESek negar egiten duen bitartean, berari atxekia, beste babesik gabe.  
Hitz egiten duenean ere, bere ahotsa hautsia dago.

**PEDRO** -.*Hau izorratzia!... Hondamena daramat leku guztietara... Ezin biziko naiz Herri honetan ere... ezta maitatu ere.. Lurdes!...*

LURDESek burua atera egiten du. Atzerantz botatzen du pixka bat PEDROri begiratzeko, oraintxe bertan erreparatuko balu bezala han dagoela.  
Beldurtu egiten du egoerak bat batean, gertutasunak, PEDROren begien espresioak. Egoera moztu egiten du bat bateko argitasun lasai batez.

**LURDES** -.*Ni ez naiz Herri hau, Pedro... Lurdes besterik ez naiz... Eraman egingo zaitut...*

Eta kotxea martxan jartzera doa. PEDROK geldierazi egiten du keinu batez:

**PEDRO** -.*Utzi... Ez dut uste horrenbestereinokoa izango denik...*

Kotxetik jaitsi egiten da. Urrunean barrikadako suak piztuta segitzen du. PEDROK arbuioz begiratzen dio bere buruari. Erabateko bufoi tonua erabiliz zera dio:

**PEDRO** -.*Barrikadetara!...*

Kotxea jiratzen ari da etorritako lekutik joateko. PEDROK zigarro bat pizten du. Jiratu egiten da bat batean eta kotxearen norabide berean doa erruneko suari eta keari bizkarrira emanda.

Islada irisatuak daude errepidean eta portuko ur koipetsuetan.

.49KEPA ETA LURDESEN ETXEA.

Barnealdea, gauez.

LURDES presaka sartzen da etxean.

KEPAren lanerako txokoko flexoaren argiak erakartzen du.

Han magnetofonia eta kasete bat aurkitzen ditu, nola nahi utziak.

LURDES kasetea hartu eta bere buruarekin burrukan hasten da, zirt edo zart egin ezinik. Azkenean amore eman eta kasetea magnetofonian sartu eta martxan jartzea erabakitzen du.



**KEPA (OFF -.***(Egia da, ez dakit igeri. Baina ahaleginduko naiz ez itotzen. Maite zaitut.*

LURDES eseri egin da bitartean, poliki-poliki, magnetofoiari biskarra emanda, ukabila bortiz itxita autoaren giltzak estutuz.

## **.50IKASTETXEKO KORRIDOREAK.**

Barnealdea, egun argiz.

Korridorearen atzekaldetik organo baten musika soinua dator, gero eta ozenago paretei atxekita doazen GIZON iladek aurrerantz jo ahala.

Hogei bat dira, tripaniak, burusoilak, berrogeitamarretik gorakoak.

XABIERrek PEDRO agurtzen du keinu batez. PEDRO ilada bateko azkena da.

BESTE BATZUK ere agur keinuak egiten dizkiote ezustean han ikustean.

Korridorearen bestaldetik, ia.ia korrika, ARRUTI dator, JAGOLE itxurako bi gizon atzetik dituela.

ARRUTIK kirolari itxura du, politiko moderno tankera; telebistan azaldu behar denerako betaurreko aproposak ere baditu.

PEDROrenganaino heltzen da. Berarenganantz makurtu eta zera dio, ezpainen mugimendua ezkututzen saiatuz:

**ARRUTI -.***Poza ematen dida! Eta ustegabeen!*

PEDRO baiezko keinua egin eta zerbait esatera doa.

AITAren ahotsak isten dio bidea. AITA aurretik doa, bi iladen erdian, eta jiratu egiten da, oso haserre dagoelako planta eginez.

**AITA -.***Arruti... Berandu eta hizketan ileran!*

ARRUTIK automatikoki erantzuten dio:

**ARRUTI -.***Sansi izan da, Aita.*

Eta irribarre maltzurra egiten du. Denek barre egiten dute. PEDROk, harrituta, berandu erreakzionatzen du. gero aurrerantz segitzen du, serio. OSO ozen entzuten da dagoeneko organoa.

## **.51IKASTETXEKO KAPERA.**

Barnealdea, egun argiz.

Organoa entzuten da bere ozentasun osoan, Tantum Ergo.aren sarrera markatuz.

BERROGEITAMARKOTEak kantuan ari dira, AITA pulpituil zuzendari dutelarik. PEDROk ez beste guztiek letra eskuetan dute. PEDRO mutu dago, begirada ARRUTIK kantatzerakoan duen aurpegiera alaitsuan iltzatua. XABIERrek ARRUTIri belarria hitz egiten dio.

XABIER.- Ezin izan diat beste modu batean konpondu. Heuk erabaki.

ARRUTI PEDROrenganantz jiratzen da.

**ARRUTI -.***Jakinaren gainean negok hire neskarenaz... geroago hitzegingo dugu... Horregatik etorriko hintzen noski...*

PEDROri lotsa apur bat ematen dio hori entzuteak.

**PEDRO** -.*Ez hain zuzen...*

ARRUTI oso ulerkor ageri da. Irribarre egiten du.

**ARRUTI** -.*Ulertzen diat Sansi, ulertzen diat...*

Eta berriz ere ahots koruarekin bat egiten du, gogatsu.

Zalantzazko une labur baten ondoan, PEDROk goraki kantatzeari ekiten dio bat batean. Kantuaren azpian ikastetxeko << ikasleen>> aurpegi helduak.

.52LURDES ETA KEPAREN ETXEA.

Barnealdea, egun argiz.

KEPA arropak eta trasteak jaso eta nolabaiteko marine tankera duen petate handi batean sartzen ari da.

LURDES kaletik iritsi eta harrituta geratzen da KEPA ikustean eta zer egiten ari den erreparatzean.

Kepa jiratu egiten da LURDESen sarrera aditzean. Antzeman egiten zaio ez duela asko poztu LURDES ezustean han ikusteak.

**KEPA** -.*Baina... A ze nahastea zure turnoekin!*

Marinel giroko marrazki bati eusten dioten txintxetak kentzeko lanean biltzen du bere kemen eta gogo guztia.

Marrazkiaren inguruan, kendu berri diren beste marrazki batzuen azpi koloregeak ageri dira.

LURDESek, KEPA paretatik kentzen ari den marrazkian erreparatzen du. Pena handitu egiten zaio hura ikustean. Bere burua menperatzen saiatzen da.

**LURDES** -.*Orduan benetan da...*

**KEPA** -.*Beti izan da benetan.*

LURDES hurreratu egiten zaio.

**LURDES** -.*Zergatik ez dugu hitzegiten?... Bion arteko gauza da...*

**KEPA** -.*Sinetsiko ez baduzu ere, zure onerako da...*

**LURDES** -.*Nire onerako?... Kepa... Nik ez dut nahi aldegitea... nik maite zaitut!*

Ahots hautsiaz esan du. KEPA bera ere LURDES bezain hunkitua dago.

**KEPA** -.*Nik ere bai, Lurdes, nik ere maite zaitut...*

Besoetatik heltzen du. Astindu egiten du. Oihuka hasten da.

**KEPA** -.*Ez da hori problema!*

Urrats batzu egiten ditu LURDESi bizkarra emanda, LURDES atzetik datorchio, samurtasunez hitz eginez.

**LURDES** -.*Zein da orduan?*

KEPA jiratu egiten da. Bere aurrean ikusten du LURDES, negarti.

Musu ematen dio. Luzaz. Biok dituzte malkoak begietan.

Mahai gainean petatea ikusten da eta, gero, marrazkirik gabe hutsik geratu den pareta.

### .53IKASTETXEKO FUTBOL ZELAIA.

Kanpoaldea, egun argiz.

Amesgaiztoa dirudi jolasa baino areago .

BERROGEITAMARKOTE tripandiak lokatz lodia zaplatzen baloi baten atzetik, kolpeak ematen eta jasotzen beren makaltasunaren eta erreflexu faltaren ondorioz.

Lokatza eta trakestasuna nagusi. Alferrikako indarkeria lerdoa.

Iribarrea, batez ere ARRUTIK, arbitro lana egiten duen APEZ GAZTEaren agintekeriarekiko.

PEDRO ARRUTIren oneriztea lortzeko ahaleginetan dabil.

ARRUTIren JAGOLEAK jokoari begira daude, urrun samar baina adi betiere.

Une batean ARRUTIK baloia eskuarekin gelditzen du, horretarako premiarik gabe.

PEDRO bere atzean zegoen eta zera aldarrikatua zion.

**PEDRO** -.*Utzi!*...

Falta seinalatzen da eta JOKOLARIEk, atezain dagoen XABIERren aginduetara, barrera osatzen dute, metro gutxi barruko baloikadaren aurrean babesteko betiko keinuak eginez.

JAGOLEetako batek zelaiaren muga markatzen duen hesira hurreratu eta zerbaitz esaten dio XABIERri. XABIER ARRUTIrengana hurreratzen da orudan. Ondoren, ARRUTIK besoak lagunengandik askatu egiten ditu, PEDROri deitzen dion bitartean.

**ARRUTI** -.*Honera Sansi, jarri hadi hemen...*

PEDROk, zalantza baten ondoren, esandakoa egiten du.

ARRUTIren lekua hartzen du.

Konortea galdu erazi egiten dion baloikada ikaragarria jasotzen du.

### .54IKASTETXEKO ERITEGIA.

Barnealdea, egun argiz.

Ohatila batean etzana, PEDRO, APEZ ZAHAR enfermeroak zaindu ondoren, kolpearen minetik zuzpertzten ari da.

**APEZ ZAHARRA** -.*Ze birauak! Hiltzen bazara infernura zuzenean... eta nolako hitz xebreak... Zer da chingada hitz zantar hori?*

*Ene Jauna...*

PEDROk ez dio kasurik egiten APEZ ZAHARRAri.

**APEZ ZAHARRA** -.*Banoa besteak lasaitzera... Fotorako itxoiteko esango diet...*

PEDROren galdera erabteko epaia da:

**PEDRO** -.*Fotoa?*

## .55IKASTETXEAREN AURREKALDEKO HARMAILAK

Kanpoaldea, egun argiz.

Bi TALDEAK elkarren artean nahastuak daude, era adiskidetsuan, kamisetak erabat nahastuta, ikstetxeko harmailetan. Kapitainek, ponperia nabarmenez, trofeo banari eusten diote. Biotako bat ARRUTI da. Beren aurrean AZPEZ ARGAZKILARIA ari da lanean. APEZ ZAHARRA heltzen da, ARRUTIri deitzen dio. ARRUTI lagunaren artetik irten egiten da, kopa beste bati utzi ondoren.

**APEZ ZAHARRA** -.*Sansik ez dauka ezer, baina ez du jaitsi nahi...*

**ARRUTI** -.*Banoa bila...*

**APEZ ZAHARRA** -.*Ongi Arruti, ongi... Aizu, zera... zuk ba al dakizu zer den **chingada** hori?*

## .56IKASTETXEKO ERITEGIA.

Barnealdea, egun argiz.

ARRUTI irribarretsu dago ohatilan etzana segitzen duen PEDROren aurrean.

**ARRUTI** -.*Tira, tira Sansi, pasa zaik...*

PEDROren haserreak handiegi dirudi arazoaren arrunkeiaren aurrean.

**PEDRO** -.*Hire lekua huen, Arruti...! Hire lekua, eta hire errua!*

**ARRUTI** -.*Negarrik ez... Galtzen ere jakin behar da...*

**PEDRO** -.*Eta irabazten... Hik ez dakik ez bata ez bestea... Arrazoa zeukak nire andreak! Zeinek esan!*

**ARRUTI** -.*Ze ari haiz? Zertan zeukak arrazoa hire andreak?*

**PEDRO** -.*Putakume batzuk bihurtu zaretela dionean!*

ARRUTI geroe ta serioago dago, baina adiskidetasun giro lortu nahian segitzen du.

**ARRUTI** -.*Tira Sansi, ez entzuna egindo diat...*

*Hitzegin dezagun garbi...*

Ohe ertzer a hurreratzen da. Tonu konfidentzian hitz egiten du:

**ARRUTI** -.*Hire alabaren kasua...*

PEDROren ohuak konfidentzian arrasto oro suntsitzen du:

PEDRO.- Etzakela aipatu ere egin! Eta gutxiago hoiaren aurrean!

JAGOLEei buruz ari da hori esaterakoan. ARRUTI gero eta haserreago dago orain.

**ARRUTI** -.*Nahikoa diagu...! Gure adiskidego zaharraren izenean, ez entzuna egingo diat berri, eta hasieratik hasiko nauk: Hemen Euskadin, arazo bat zegok sakonean...*

Baina PEDRO ez dago amore ematekotan. Eten egiten dio oihuka:

**PEDRO** -.*Noiztik esaten duk hik Euskadi? Eta batez ere, noraino?*

ARRUTIk ere tonua goratu egiten du:

**ARRUTI** -.Ni beti izan nauk Gora Euskadikoa...

Bere buruari eutsi egiten dio eta tonu arrazonagarrira itzultzen da.

**ARRUTI** ... -.baina España barruan... Eta hi, Sansi, hi zer?

PEDROk mesprezua erakusten duen era nabarmenean begiratzen die JAGOLEei:

**PEDRO** -.Ni hi bezala, jaun hoiek agintzen dutena... Ez dutena... Ez dut potrorik bestetarako... Ezta heuk ere, baina nik behintzat aitortu egiten diat...

ARRUTI haserratu egiten da erabat. Eskua altxatzen du:

**ARRUTI** -.Emango niake hostiako bat!...

**PEDRO** -.Etzakela biraorik bota! Esatea baino pekatua arinagoa duk ematea...

Pozik dirudi bere gogoeta horrekin, zeren eta bat batean jaiki eta ARRUTI eraitsi egiten bait du zaplasteko ozen batez. Zarataren onodoren, atea zabaltzen da. Jakinmina erakusten duten aurpegiak azaltzen dira, txunditutako JAGOLEen artean.

**PEDRO** -.To, esaiek orain... <<Sansi izan da...<<

Eta duintasunez irtetenda.

.57KEPA ETA LURDESEN ETXEA.

Barnealdea, iluntzean.

Berriz ere liburuentzako apalak erdi hutsik, paretak lehen kadroak egondako tokietan agerian geratutako nabargunez zipriztunduak, petatea erdi betea.

KEPAk, sofan eserita, oinak zolu gainean, alkondararen azken botoiak lotzen ditu.

LURDESek oraindik ere etzanda segitzen du. Berarengana makurtzen da KEPA. Musu leuna ematen dio.

Jaiki eta petatea dagoen tokirantz abiatzen da. Petatea betetzeko lana bukatzen du, presaka. Itxi egiten du keinu bortiz batez.

LURDES berarenga iristen da.

**KEPA** -.Seguru asko, noisbait heldutasunera iristen banai, damutu egingo naiz... eta arrrazoia zurea izango da...

Beriz ere hunkitzen hasten ari dela ohartzen da eta defendatu egiten da.

**KEPA** ...eta aitortzeko adorea izan nahi nuke...

Oso tristea da LURDESen aurpegiera, hutsune eta gabezia artean enkoadratua.

Hala ere bere ahotsa tinko entzuten da:

**LURDES** -.Ez daukazu eskubiderik!... Bion arazoa da!

.58KOROREN ETXEA

Barnealdea, iluntzean.

KOROk interfonoan erantzuten du, sukaldean:

**PEDRO (OFF -.***(Ireki, Koro, esateko bat daukat, inportantea...*

**KORO -.***Orain ezin dut... deituko dizut Hotelera geroago...*

**PEDRO (OFF -.***(Mesedez, Koro... artaburu bat naiz... Paulari kalte egin diot... ireki ezazu...*

Ateak zabaltzean egiten duen dundurioak eteten du ekaera. KOROk hasperen egiten du.

.59KOROREN ETXEA

Barnealdea, iluntzean.

KOROk sarreran hartzen du PEDRO. Urduritasunez, etxean barrena sartzea galerazten dio.

**KORO -.***Hemen hobe... jendea daukat... Paulare lagunak...*

**PEDRO -.***Dena hondatu dut, Koro.. Hasi zait Arruti...*

KOROk eten egiten dio, gogo:

**KORO -.***Arrutirekin egon zara? Baina... esan nizun... esijitu nizun...*

**PEDRO -.***Ikusi dut eta jo egin diot... eta bere esku dago indultoarena...*

**KORO -.***Jo egin diozula? Zuk Arrutiri?*

Barre egiten hasten da, gogoz, algaraka.

**PEDRO -.***Koro! Burutik zaude! Paulaz ari naiz...*

*ez daukagu eskubiderik, eta nik inork baino gutxiago... Arrutiri barkamena eskatzeko pronto nago, horixe nahi nizun esan, eta Paula ikusi nahi dudala...*

**KORO -.***Ez nago burutik... Nire alaba ikusteko aukera izango duzu laister... baina kalean!*

PEDRO guztiz nahastuta dago:

**PEDRO -.***Aldatu egin al du ideaz?*

**KORO -.***Ez ezazula iraindu!... Ez idearik aldatu*

*eta ez indultorik... Egun gutxi barru bere kasoak ikusi behar dute oster... horretaz ari gine...*

Etxe barrura seinalatzen du.

**PEDRO -.***Arruti horrek jakinaren gainean egon behar zuen... eta mesedea saldu nahi izan dit denbora guztian... Le voy a partir la madre... Barkatu...*

**KORO -.***Gaur dena barkatzeko nago...*

**PEDRO -.***Dena?*

Serio jarri dira biak, deseroso:

**KORO -.***Ez izan festazaputz...*

Aterantz darama, samur esanez:

**KORO** -.Ikusi arte, Pedro...

Erregu egiten du PEDROk:

**PEDRO** -.Gogoratu nazazu gorrotorik gabe...

**KORO** -.Saiatuko naiz... Saiatuko gara biak...

## .60EUSKALTEGIANREN AURREKALDEA.

Kanpoaldea, iluntzean.

LURDES bere kotxearen bolantean, eta kotxea geldirik.

Aurreko espaloian dagoen Euskaltegira begiratzen du tinko.

Atean KEPA azaldu da zenbait IKASLEekin.

KEPAk ere irten bezain laster ikusten du LURDES baina es dio inolako keinurik egiten.

LURDES iristen ez den keinu horren zain dago. Klaxona jotzen du. Bi aldiz KEPAk ezin du disimulatzen segi.

LURDESengana jasotzen du begirada.

LURDESek irribarre egiten du.

KEPAk ezezko keinua egiten du buruarekin. Eta besterik gabe ,aldamenean duen kotxean sartzen da IKASLEekin batera.

LURDESek ikusi egiten du urruntzen. Berak ere, oso era tristean, ezezko keinua egiten du buruarekin .

Bi kotxeak elkarren ondoa pasatzen dira.

## .61NIZA HOTELEKO GELA.

Barnealdea, egun argiz.

PEDRO telefonoz hizketan ari da, gogatsu. Bere azentua eta bere hiztegia mexikarrak dira.

**PEDRO** -.*Sí ...en unos días... hay chanc de que la liberen... ya sé que no vine por eso...*

*¿Que qué hay con su mamá ...?De eso hace 20 años¿ ...Tú tampoco vas a perdonarme¿ ?Cómo que quién más ...?La vida, Blanca, la vida no me perdona... Está bueno ya...*

Kolpe batzu jotzen dituzte atean.

**PEDRO**<sub>j</sub> -.*Blanca, por favor! No seas...*

Berriz ere kolpeak aditzen dira. Ez du kasurik egiten telefonoaz bestaldeko errestentzia hautsi nahian ari bait da buru-belarri. Etsi egiten du, nahiz eta eseki aurretik zera erreplikatzeko jardun:

**PEDRO**<sub>j</sub> -.*Te quiero, Blanca!... Está bien... te volveré a llamar...*

Eseki egiten du. Aterantz doa. Zabaldu egiten du.

LURDES du aurrean. Oso urduri dago, hautsita.

**LURDES** -.*Barkatu... komunikatzen zegoen denbora osoan eta igo egin naiz...*

**PEDRO** -.*Pasa, pasa... Ez dago zer barkaturik...*

LURDES sartu eta leihorantz doa. Bere ibilera tinkoa da, zalantzarik gabekoa, behar baino ausartagoa beharbada. PEDROk LURDES bizkarra emanda ibiltzen ikusten du.

Begira geratzen zaio, zer asmo izan dezakeen ezin asmatuta. Bestalde ,oraindik ere ez da erabat zuzpeltu izan berri duen solasaldi telefonikoaren ondorioetatik.

Tonu amoltsuan eskaintzen du:

**PEDRO** -.*Trago bat nahi?*

LURDES jiratu egiten da. Zuzen-zuzen begietara begiratzen dio. Zerbait esaten hasten da, tonu behere eta intetsuan:

**LURDES** -.*Pedro, nik...*

Gelditu egiten da. Bat batean, desesperatua dirudien jokabide batez, besarkatu eta ahoan musukatu egiten du. Musu luzea da. PEDRO makurtzen doa pixkana-pixkanaka, LURDESek besarkatua, edalontziak zoluan utzi ahal izateko. Edalontziak zoluan utzi ondoren, erantzun sutsua ematen dio LURDESen besarkadari eta musuari. Elkarri arropak erazten hasten dira. Beren burruka oraindik ere konpondu gabe dagoen ispilu hautsian isladatzen da.

.62NIZA HOTELEKO GELA.

Barnealdea, iluntzean.

PEDRO ohean etzanda dago, bakarrik. LURDESi begiratzen dio jazten ari den bitartean.

**LURDES** -.*Nor da Blanca? Méjikoko emaztea?*

PEDROK baietz ametitzen du.

**PEDRO** -.*Hilabetea du utzi ninduela... Inkonpatibilitadea, dio... hamar urteren ondoren... baina zuk nola dakizu?...*

**LURDES** -.*Atean nengoela entzun dut...*

PEDRO harrapatua eta izorratua sentitzen da:

**PEDRO** -.*Oihuka ari nintzen maite nuela, eta zu...*

**LURDES** -.*Nik... nire erabakiak ez du zer ikusirik horrekin... zure bizitza beste bat da...*

**PEDRO** -.*Baina zu sartu egin zara barruan... lehenengo egunetik... hainbeste gauzaren astindua da eta... Agian... agian... maitemindu egin nauzu, Lurdes...*

**LURDES** -.*Eskerrik asko, Pedro, baina ez da preziso... Nik beste zerbait behar nuen... erabaki dezakedala jakitea... maitatu egin litekeela... ez poema noiz bukatu zain egon bakarrik...*

Esaldi erdian altxatu egin da. LURDESen gorputz gazte desiragarriari begira dago PEDRO.

Gogorapen mingots bati jarraiki mintzo da ondoren.

**PEDRO** -.*Nire alabak zure edadea du... Hoge urte dira ikusten ez dudala preso dago orain...*

LURDES jiratu egiten da, harrituta:

**LURDES** -.*Sansinenea... Paula!... Noski, ezta burutik pasatu ere... eta ez zara bisitan joan inoiz?*

PEDRO galtzak jazten ari da. Gaizki sentitzen hasten da LURDESek egiten dizkion galderen aurrean:



**PEDRO** -.Ez naiz gauza izan bueltatzeko... Hau dena hila eta lurperatua dago niretzat...

**LURDES** -.Orduan, zergatik itzuli zara?

Bat bateko zintasan mingarriz mintzo da PEDRO; bere maleta dagoen tokiraino joan eta hegazkineko txartela ateratzen du.

**PEDRO** -.Egia esan ez naiz itzuli... Tranpa hutsa da dena... beti bezala... Begira!

LURDESek PEDROk luzatzen dion txartelari begiratzen dio.

**LURDES** -.Joan eta etorri...

Daten kontua ateratzen du buruz:

**LURDES** -.Hogeiabost egun... Eta? Sustraiena eta hori guztia?...

**PEDRO** -.Lerdokeriak!

Letania kutsua duen aitorkuntza batekin segitzen du, monotonoa, gorabeherarik batere gabekoa:

**PEDRO** -.Blancak kalean jarri ninduenean... astebete pasa nuen mozkor batean... batera eta bestera... maletak eta guzti... Ez naiz asko oroitzen...Aireportuan bukatu nuela behintzat, atso eta agure artean...

Bere tonua askoz ere pertsonalagoa egiten da:

**PEDRO** -.Zahartzen ari naiz, Lurdes... Eta ezin dut eraman!... Ez dut aurrean ezer ikusten... Horretarako berdin da atzera egitea...

LURDESi begiratzen dio, guztiz eder jatzeko lana amaitzen. Tonua aldatzen du berarengana hurreratuz.

**PEDRO** -.Saio bat egin genezake, Lurdes...

LURDESek gaumahiaren gainean utzitako txartela hartu eta puskatzera egiten du PEDROk. LURDESek galeratzen dio.

**LURDES** -.Ez da posible, Pedro.

**PEDRO** -.Kepagatik?

**LURDES** -.Ez, niregatik da...

Aterantz doa:

**LURDES** -.Kepa eta bion artekoa amaitu da. Berak hautsi du...

PEDROk barkamen eskaera bati ematen dio hasiera:

**PEDRO** -.Lurdes, nik...

**LURDES** -.Ez duzu zertan desenkusatu behar...

Zuk ez diguzu kalterik egin...

Irribarre egiten du alde egin aurretik.

PEDRO hunkiturik geratzen da, txartela eskuan duela.  
LURDESek ate isten du poliki-poliki

### .63KOROREN ETXEAREN AURREKALDEA

Kanpoaldea, egun argiz.

KEPA behebarruraino iristen da.  
Luzatutako eskuak interfonoko botoiak zanpatzen ditu.  
Txirrinak jo eta EMAKUME AHOTSA aditzen da.

**EMAKUME AHOTSA (OFF -.***(Nor da?*

KEPAk azkar ematen du erantzuna:

**KEPA -.***Publizitatea... Lankide Aurrezkia!...*

Atea zabaltzearen durundioa entzuten da. KEPA sartu egiten da.  
Behebarruan sartuta, KEPAk gutunontzietako txartelak errepasatzen ditu.  
Horietako batean KORO PAGOLA DE SANSINENEA irakurtzen du. Eta azpian PAULA SANSINENEA.  
KEPA begira geratzen da.

### .64KOROREN ETXEA

Barnealdea, iluntzean.

PAULAREN aurpegi gaztea ageri da, plantillaz kopiatua, pankarta baten gainean, aldamenean beste aurpegi batzu dituela eta letrekin idatzia: HERRIAK HERRIAN NAHI ZAITUZTE. Pankarta pareta baten kontra dago, antzeko beste batzuen gainean, guztiak zolu gainean bermatutako makilei lotuak. Himno bat aditzen da.  
MUTILAK musika sortzen ari den magnetofonoa zaintzen du. Bolumenaren mandua erabiltzen du, eskuarekin sarrera ematen bitartean.  
Musika beheretuz doa harik eta galdu egiten den arte ,KEPAREN ahotsa aditzen hasten delarik orduan, dotore irekurtzen:

**KEPA -.***Paula, Ander... eta beste guztiak...*

Mikrofono aurrean dago. Testua eskuz idatzita duten orri batzuetatik irakurtzen ari da.

**KEPA ... -.***Zuek ez zarete haizeak ekarritako orbela... Herria da ekarri zaituena, Herriak herrian nahi zaituztelako... Gaur, zortzietan, ongi etorria gure presoei Geltokian...*

MUTILAK adi.adi. entzuten du, baiezko keinu hunkitua eginez.

**KEPA -.***Ate guztiak amilgarriak dira, bultza!*

MUTILAK mandua jiratzen du berriro eta himnoa goratuz doa, KEPAREN azken hitzekin kateatua.  
Jiraka ari diren bobinen irudiak ere kateamendua egiten du hurrengo irudiarekin.

### .65KOROREN ETXEA

Barnealdea, iluntzean.

Himnoaren azken notak KOROren gainean aditzen dira, telefonotik hitz egiten duen bitartean, urduri.

KORO.- Noski joango naizela! Inork ez dit debekatuko nire alaba besarkatzera joatea...

Zuk ez al duzu joan behar...? Ulertzen dizut baina pena hartzen dut... Zure partetik, bai... Ah, eta Arrutirena kontatuko diot...

Agur Pedro, ongi ibili...

Eseki egiten du.

#### .66NIZA HOTELEKO GELA.

Barnealdea, iluntzean.

Ispilua konponduta dago. Bertan PEDROren irudia ageri da, betazpi sakonekin, telefonoz hitz egiten:

**PEDRO** -.Eskerriak asko, Lurdes... Bai abisatu dit Korok... Eskerriak asko hala ere... Irratian?

*Ez ez dut entzun... Aizu, izango duzu telefonoren bat Kepa harrapatzeko... Despeditu nahi nuke... Ez ez naiz joango... Ongi pentsatua daukat...*

#### .67LURDES ETA KEPAREN ETXEA.

Barnealdea, iluntzean.

Iluntzen hasia da.

LURDESek basket zapatilak egokitzen ditu oinetan.

Irratian KEPA hitz egiten hasi aurreko himnoa entzuten da.

#### .68NIZA HOTELEKO HARRERALEKUA.

Barnealdea, iluntzean.

**KEPA (OFF IRRATIA** -.*(Paula, Ander... eta beste guztiak... Zuek ez zarete haizeak ekarritako orbela...*

PEDROk barran entzuten du whisky bat edaten duen bitartean.

Telefonoa hartu eta zenbaki bat markatzen du. Ez dute hartzen; eseki egiten du.

**PEDRO** -.*Eska iezadazu taxi bat.*

Gero zalantzatan geratzen da. Behin baino gehiagotan hasten da HARRERALARIari deitzeko keinua egiten.

Azkenean hala ere erabaki tinkoa hartzen du:

**PEDRO** -.*Aizu, ez, ez... uztazu, atera iezadazu whisky bat...*

#### .69GELTOKIAREN AURREKALDEA.

Kanpoaldea, iluntzean.

TXARANGA bateko partaideak datoz, beren tresnekin.

Lehenengo pankartak, bilduak oraindik ere, JENDE taldeak hurreratzen...

Gaua da laister.

.70NIZA HOTELEKO HARRERALEKUA.

Barnealdea, gauez.

PEDRO edaten ari da. HARRERALARIA hurreratzen zaio.

**HARRERALARIA** *-Abiso bat zuretzat. Taxia zain daukazu...*

PEDRO harritu egiten da, haserratu ere bai ia-ia.

**PEDRO** *-.Taxia? Esan nizun anulatzeko...*

HARRERALARIAk hotz erantzuten dio:

**HARRERALARIA** *-.Ez dut anulatu, eskatu ere ez baitut egin... Baina hor atean taxi bat dago Sansinenea jaunarentzat.*

PEDRO jaiki eta Hoteleko aterantz doa, umore txarrean.

.71GELTOKIAREN AURREKALDEA.

Kanpoaldea, gauez.

Iristen segitzen duen JENDEArendandik aparte samar, FOPEkoak prestatzen ari dira.

Hala POLIZIAK nola JENDEA biltzen ari dira.

.72NIZA HOTELAREN AURREKALDEA.

Kanpoaldea, gauez.

PEDRO taxi baten aurrean makurtua dago, TAXISTAekin eztabaidan leihatilatik zehar.

Esku batek kolpatzen du bizkarrean. Ahots ezaguna entzuten da:

**KEPA (OFF** *-.(Zuretzat da, Sansinenea.*

PEDRO kiratu egiten da, harrituta esta haserre. KEPAhizketan ari zaio, aurpegira begira.

**KEPA** *-.Pentsatu diat zor nian matrailekoa ordaintzea...*

PEDRO zurrun jartzen da.

**PEDRO** *-.Egintzak eta etzakela izorratu!*

KEPAk PEDROk erregalatutako betaurrekoak atera esta itzuli egiten dizkio.

PEDROk hartu egiten dizkio, haserre.

**KEPA** *-.Oroit hadi, nahikoa diat gerra batekin... Igo!*

Kotxearen atzeko ateko eskutokia oratuz dagoeneko TAXISTAri zuzentzen zaio KEPAn, sartu aurretik.

**KEPA** *-.Geltokira!*

TAXISTAk harriduraz begirutzen die KEPA eta PEDROri, eta dio:

**TAXISTA** -.*Geltokira? Ordu honetan hain zuzen? Eta maletarik gabe? Ni ez noa!*

TAXISTA kotxea martxan jarri eta urrundu egiten da, KEPA eta PEDRO begira dituela.

**KEPA** -.*Orduan oinez! Ez duk bildurrik izango, noski?*

.73GELTOKIKO KALEAK ETA ZUBIA.

Kanpoaldea, gauez.

Gero eta gertuagoak diruditen detonazioak entzuten dira.

PEDROk eta KEPAk elkarri begirutzen diote ixilean, tiroak sortzen diren lekura hurreratzen ari direlarik.

**PEDRO** -.*Eta zergatik egin behar duk hau?... Duintasun kolektiboa ala indibiduala?*

KEPAri nekeza zaio erantzutea:

**KEPA** -.*Estimatzen haut eta, besterik ez.*

**PEDRO** -.*Nik ere estimatzen haut...*

Zubitik zehar, kontrako bidean, urratutako pankarten puskak, txarangako musika tresnak eta abarrak daramatzaten GAZTEAK pasatzen dira lasterka.

Zenbait PERTSONA ZAHAR Zubiaren erdian gelditzen dira, zer egin ez dakitela.

Korrika doazen GAZTEAK makurtu egiten dira, gelditu gabe, beren atzetik politen tiroak entzunez.

Tenore horretan tren baten iritsieraren soinua entzuten da. Dudarik gabe, karga poliziala minutu batzu lehenagorakoa prestatua zuten.

Ezusteko bulkada batean PEDRO Geltokirantz korrika hasten da.

KEPA ere korrika doazenen kontrako bidean doa, PEDRO Geltokira hurbiltzen ikusten duelarik.

KEPAk begira segitzen du. ZAURITUTAKO MANIFESTARI BATen parera heltzen da, eta hura eramaten laguntzen die BESTE MANIFESTARI BATZUei.

PEDROk korrika segitzen du. Inguruetara begirutzen du eta sakabanatzen ari den JENDEA ikusten du. Geltoki ondoan POLIZIA BATEk kartel bat kentzen du amorrubizian, eta gero zapaldu egiten du.

.74GELTOKIA.

Kanpoaldea, gauez.

PEDRO korrika dator.

Pasatzen uzten ez dioten POLIZIA BATZUekin eztabaidan ikusten du KORO.

PEDROk ere nasetarantz pasatzeko ahaleginak egiten ditu baina POLIZIEk galerazi egiten diote pasatzea.

Ate batera hurreratu eta KORO ikusten du PAULA besarkatzen.

**PEDRO (OFF** -.*(Paula!*

.75GELTOKIA. AURREKALDEA ETA ZUBIA.

Kanpoaldea, gauez.

PEDRO oraindik ere PAULAren argazki bat erakusten duen pankarta hautsi baten pareraino iristen da.

POLIZIEk botatako potoen keak estaltzen ditu oraindik ere nasak.

PEDRO ibiltzen hasten da, nora jo oso ondo jakin gabe. Gero esta urrunago eta bakanago entzuten diren tiro eta leherketei soinu berri bat eransten zaie, guztiaren jabe eginez. Tren baten durundioa da.

.76TREN GELTOKIA, 1945.

Kanpoaldea, gauez.

PEDRITOk harriduraz ikusten du guardiazipilek AITA heldu eta eraman egiten dutela AMArengandik urrunduz.

**PEDRO (OFF -.***(Badirudi gerrek badutela bigarren aktu bat!...*

.77GELTOKIA. ZUBIA

Kanpoaldea, gauez.

Zubiaren bestaldean, sakabanatutako MANIFESTARIAK berriro ere biltzen hasten dira, Geltokira jotzeko saio berri bati ekiteko asmoz.

Geltokiko atean, kez inguraturik, PEDRO ageri da.

Hegazkinaren motorren zaratak ke-mulkoak hodei-itsaso bihurtzen dituela dirudi.